1973 — OTSAILLAK, 11 XXXIII - garren urtea 519 - Zenbakia

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

NON ZER

- OHORE ZURI! Gaztelu ... 3 garrenean
- AHOZABAL MUTUAK Elexpuru ... 3 garrenean
- VIETNAM-GO KONDAIRA GORRIA Elustondo ... 5 garrenean
- JON MIRANDE HIL ZAIGU! Etxaide - Arze ... 7 garrenean
- GOGOETA BATZUEK Arregi - Mujika ... 11 garrenean

Benetako artista

Isidro Ansorena, Txistularia

Berari zor dio txistuak den guztia

Iruiñeko, Baionako eta Lekeitioko eliz nagusietan ba omen dira arrian landutako aingeru txistulariak bere danbolin eta guzti. Eta aingeru maillara iritxi zaigun aragizko txistulari beneragarri den Isidro Ansorena jaunari gure elkarrizketa egitera eldu geranean ikusi dugu, ikusi, Donostiako txistulari famatuak ez diola inbiririk inongo aingeruri.

Gizon apala, apalik bada, aurkitu dugu konpota-katillu bat gosaltzen ari zela. Farre egiten zion elkarrizketa egin beharrari. Izan ere, txistularien maixu aundi honi utsaren urrena egin duela iruditzen zaio, bere txistularitzan. Txikitandik ikasi baitzuen, etxetik baitzekarren ezurretaraiño sartua.

Larogeita bat urte egingo ditu datorren maiatzean eta amalauekin asi zen txistu jotzen, kaleko txistularitzan.

Hori Ernanin zan, ernaniarra baitugu gure maixua.

Munduko txistularirik onena dela esan diodanean, ezetz esaten du. Hori gehiegi esatea dela. Bainan guk badakigu hori duela eta besterik ez bere neurri jatorra.

—oOo—

—Ez ote zera, bada, zu danetan onena?

—Ez, ez. Gasteizkoak gure aurretik izan ziran Bermeon, 1910 garren urtean...

—Nork irakatsi zizun txistua jotzen?

—Gure aita txistugillea zan; eta sarritan esaten zidan: "Jo ezak hori!" Nik hura jo egin behar, nolakoaote zan ikus zedin. Baiña nik iru osaba izan nituen txistulari, irurak zein baino zein obeak. Inazio, Castro Urdialeseko txistulari, Manuel, Errenteriakoa eta Fernando Balmasedakoa. Eta nere osaba Fernando honek erakutsi zidan fintasun pixka batekin jotzen.

—Gaztetandik asi ziñan Ernaniko plazara irtetzen...

—Amalau urtekin. Ederra izan zan hura! Bazan Ernanin txistulari-banda. Eta behiñola, Olaizola, bigarren txistulari zenaren anaia bat, beste norbaitekin mutur joka ibilli zela edo ez zela, txistulariari alkateak bere lekua bat batean kendu zion, zer ikusirik ez bazuen ere arazo hartan. Horrela gertatzen dira gauzak.

Orduan nere anaia Joseri eman zioten lan hura, bera ere ibiltzen baitzen Donostiako elkarteetan eta, txistu jotzen. Baina nere anaia ez zan osasuntsua eta utzi egin behar izan zuen. Neri deitu zidaten, geratzen zen txistulari zaharrari lagun nezaion. Eta horrela ibilli nintzan zaharrarekin bi urtetan, danboliñik gabe. Teodoro Erauskin zen zahar hura. Laister il zen eta berriz ere gure anaia asi zen. Biok ibilli giñen.

—Beste maixurik ez al zenduen izan?

—Bai. Garai hartan Ernanin oposizioak egin zituzten eta ni Tolosara joaten nintzan, Jose Zestona jaunarengana, ikastera. Harek erakutsi zidan asko, asko benetan. Ni ez nintzen alkatearen gogozkoa baiña nere maixuak orduan eta arreta gehiagoz prestatu ninduen. Eta baita irabazi ere.

—Zerbait berezirik erakutsi al zizun Zendoiak?

—Bai. Harek zionez, nik beste iñork ez zion jarraitu bere eskolari.

—Zuk ez al duzu zeure eskola bat sortarazi? Zuk egin ohi izan duzun konpas irukoitz hortaz zer diozu?

—Baztango txistulari batek jaso zuen liburu batean era hori. Irunen, klarinetea jotzen zuen Larruker izeneko batek erabiltzen zuen eta neri liburua utzi zidan. Gero hortik aurrera, nere xaltxa ere eman izan diot, jakiña.

—Guk badakigu maixuaren «xaltxa» hori, Ansorenaren eskola berri bat izan dela. Iñork ez bezala goxatu baitu berak txistua. Goxatu, findu, goraipatu, artista batek bakarrik egin dezaken moduan. Ansorenarekin igo zan txistularitza goi maillaraiño. Gaur txistua nola jotzen dela uste duzu?

—Danetatik dago, jakiña. Baiña akats bat nabarmentzen dela uste dut, azkar azkar jotzeari ematen zaiola garrantzi aundiegia eta bihotzik gabe, goxotasunik gabe jotzen duela askok eta askok. Notak ondo esan behar dira, poliki poliki eta garbi.

—Aitaren antzera, zu ere txistugille izan zera. Arlo honetan ere, ez al diozu zuk txistuari zerbait berririk atera?

—Txistuak, zenbat eta luzeago, orduan eta doiñu lodiagoa sortzen du. Horrela, nik txistuari milimetroren batzuk erantsi nizkion luzeroan eta hala soiñu gozoagoa du. Hemen, nahi baduzu, esango dizut kontu polita. Nik nere bizi guztian erabilli izan dudan txisturik maiteena eta onena, gure aitak egiña da. Astigarragako udaletxerako, enkarguz, egin zuen. Baiña Astigarragakoek, oso motela zela-ta, itzuli egin zioten eta gure aitak bueltatu egin behar izan zizkien artutako 60 pezeta. Irurogei urte ditu orain txistu horrek, eta ez nuke salduko urrearen truke.

—Zer esango zenduke orain gauza berriak egiten eta era berrien billa dabiltzan taldeez?

—Hoiek oso gauza ezberdiñak dira...

—Zure familian ba al da seme edo illobarik zure maillara iritxi denik?

—Illoba bat, Jose Inazio, polliki dabil... baiñan oraindik ez nau gainditu.

—oOo—

Nola gainditu, ene bada, txistugille, eresgille, txistulari, maixu eta sortzaille izan den artista oso hau?

Bere apaltasunak liluratu gaitu. 1922garren urteaz gero Donostiako erriak asko eta asko zor dio Isidro Ansorena jaunari. Zenbat kalejira, zortziko, ariñ-arin eta musika saio eder zabaldu dituen gizon honek Parte Zahar hortan zehar! Eta Donostian ez ezik, makiña bat Udaletxeri idatziz eta itzez adierazi izan dio txistulari bandarik gabe ez uzteko erria. Euskalerritik kanporaere Ansorenagatik ezagutu ahal izan dute noraiño igo diteken, artista on baten eskuetan, gure ezaugarri sonatua den soiñu hori. Lehen, Orfeoia kanpora irtetzen zen bakoitzean, Donostiako Txistulariek ere joaten bait ziren.

Ar bitza maixu apal eta aundiak zor zaion esker ona, eta gure omena.

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

NERE BORDATXOTIK

Agindu genituten bezela, Azpeiti'n ikusitakoaren berri ematera goaz. Otz goiz partetik; izotza, orma. Eguardiko amabiterdietan ezin da giro obea. Eguzki epel, goxoa.

Jendea poliki bildu zan Otaño ta "Urreta'ren" arteko leiaketa ikustera. Sarrera polita.

Plazan sartu giñanerako, ta ebateko zegon egur errenkari begira jarri, naigabe aundi bat nabaitu genduen gure barruan. Ainbesteko egur pillatik, iru enbor, iru "tronko" bakarrik zeuden legezkoak edo kondiziozkoak; "Urreta'k" aukeratu ta jarritako iru egurrak.

Aiek borobillak ziran guztiz, Euskalerriko oitura zarrak agintzen duen bezela.

Beste danak legez kanpokoak; entzat eman etzitezkenak eta borobiltasunaren arrastorik iñundik etzutenak. Zapalak, edo kuadratuak: ziri tankerakoak asko.

"Irabazleak lan danak 22 minutuan bukatu baietz", otsegiten zuten korredoreak.

Federazioko gizon Artola jaunak, norgeiagoka asi aurretik, itz batzuk egin zituen jendearen aurrean. Onela mintzatu zan:

"Otaño ta "Urreta" konforme daude beren apustua aurrera eramateko.

Federazioak ontan eztu ezer esatekorik. Ala nai badute, joka ditezela. Egurrak legez eta kondizioz jarriak eztauden ezkero, onenbeste denboran ebaki baietz eta ezetzean egin diran trabesak eztute balioko: eztute indarrik izango. Gipuzkoa'ko Federazioak eztu aintzat artuko aizkolariak lanean pasatzen duten denborarik.

Ezta apuntatu ere eztu egingo gaurko markarik".

Egundoko txaloak jo zitzaizkion Artola jaunari.

Jendearen pentsamentua agertu baizuen; plazan zegon bakoitzak une artan pentsatzen zuena.

Gu ez gera iñor mindu zale, ta Jainkoak aparta gaitzala ontatik.

Egiak esanzale bai ordea, gure egitekoa au da-ta.

Gizaldiz-gizaldi gure egunetaraiño etorri diran oiturak eta legeak era ontan apurtu, narrastu ta ondatu bear al ditugu?

Nun degu burua ta gizatasuna?

Egingo dan lana egin, pasako dan denbora pasa, baiña enborrak izan ditezela enborrak, eta ez tabloiak. Basoko zugaitzak, arbolak, borobillak izaten dira, ta ala izaten ziran len plazan ebaten ziranak ere; al zanik borobillenak.

Irabazleak 27 minutuan bukatuko ote ditu bere egitekoak?", ari giñan galdezka radioz eta periodikuz.

Lenagotik ebaki zituzten, baiña len esan degunez, Azpeiti'ko markak eztu balio. Federazioak etzuen aintzat artu, ta ezta apuntatu ere legezkotzat. Badakigu zer denbora pasa zuten batek eta besteak. Balio gabeko denborak dira ordea.

Otaño irabazleak, 22 minutu ta 37 segundoan eman zuen 22 oinbeteko izenekoen kontu. "Urreta" galtzailleak, 23 minutu ta 25 segundoan, 25.

Egur legezko ta kondiziozkoak izan balira, naiko lanak izango zituzten 27 minutuan erdibitzen. Ez seguruago.

Gogor jo zuten, egin zituzten alegiñak. Ontan eztaukagu zer esanik. Txalo beroak jasoko zituzten itxuran jarritako egurrak izan balituzte. Ala etzituztelako, egindako lanari etzion jendeak eskerrik eman. Alperrik nekatu zirala esan bear.

Gure iritzi argalak ezer balio baleza, auxe esango genduke: legez kontra jarrita dagon egurrik ez litzakela ebaki bear plazan; alako norgeiagokak, batere errukirik gabe, erabat galerazi bear lituzkela Federazioak. Joka bear badute joka dezatela aurretik datozen oitura ta arauak errespetatuz. Plazan sarrera kobratu ezkero ala nai litzake.

Konforme dirala biak egurrak "ontaraka edo artaraka" jarrita jokatzeko? Joka ditezela basoan, mendian, edo baserri atari batean, nai badute, baiña ez iñongo plazan eta sarrerarekin.

Federazioak asko lezake ontan: dan-dana. Bera da, gure ustez, erabaki latzak artu bear dituena. Legepean, edo baterez.

Araudi edo "erreglamentu" berri bat antolatu, nai bada, lengo oitura nola dan ondo dakien ezkero. Artara makurtu ditezela danak.

Beste gaiñontzean eragotzi, ta kito!

Ikasiko luke jendeak zintzo ibiltzen. Ia zer erremerio!

Lenengo bost egurrak Otaño'k, 3 minutu ta 48 segundoan ebaki zituen: amar, 8 minutu ta 40 segundoan. Amabost, 14 minutu ta 27 segundoan. Emezortzi, 18 minutu ta 10 segundoan. Ogeitabi, 22' 37".

"Urreta'k": bost, 3 minutu ta 45 segundoan. Amar, 8 minutuan. Amabost, 13 minutuan. Ogei, 17 minutu ta 55 segundoan. Ogeitabost, 23 minutu ta 25 segundoan.

Otaño'ren adiña (edadea): 21 urte. Pixua: 86 kilo.

"Urreta'ren" adiña: 28 urte. Pixua: 84 kilo.

Otaño'ren erakuslea: Esteban Saralegi jauna; "Urreta'rena", Kristobal Lazkano jauna. Penagarria ikusi genduena.

Len ez genekien zerbait jakin degu.

Erabaki dute "Arria" bigarrenak eta Latasa'k zein plazetan jokatu.

Tolosa'koa aukeratu dute.

"Arria'k" Azpeiti'koa nai zuen, bertakoa danez, baiña indar aundia zegon beste aldetik.

Napar aizkorazaleentzat alde aundia dago, izan ere.

Naparroa mendi aldeko jendeak tratu geiago du Tolosa'rekin Iruña'rekin baiño, naizta beren uri-buru edo "kapitala" izan.

Dala azoka, dala peri, dala apustu, ingurumarietako naparrak Tolosa'ra datoz alai ta pozez. Etxeko dira bertan.

Egurrak erdibana aukeratuko dituzte.

Amar enbor eramango ditu Latasa'k Tolosa'ko zezen plazara, ta amaika enbor, "Arria'k".

Plazako egur-jartze lana ere erdibana egingo dute.

Ogeitabat kana-erdiko, "Arria'rentzat".

Ogei kana-erdiko, Latasa'rentzat.

Eskubide bat du "Arria'k": Latasa'k baiño geiago ebaki bear egur bakarra aukeratzekoa ta ebateko moduan berak jartzekoa.

Aizkolari bakoitzak erakusle bi izango ditu.

Joko —eguna baiño zortzi— amar egun aurreragotik, plazarako sarrerak onoko ostatu auetan salduko dira:

Donosti'n: Bar Urola'n.
Tolosa'n: Bar Egoki'n.
Azpeiti'n: Bar Bitor'en.
Eibar'en: Bar Agiñazpi'n.

Irabazleak jasoko duen diru sorta. berrogei milla duro.

Dirujasotzaillea: Donosti'ko Bar Urola'ko nagusi jauna.

Ezeren okerrik eztala, otsaillaren emezortzigarren egunean, eguardiko amabiterdietan izango da norgeiagoka au.

"Arria" gaztearen ametsa Sunbilla'ko aizkolari maixua menderatzea da. Berrogeitairu urte ditu Latasa'k, eta egundo izan danik onena orain da "Arria".

Kana-erdiko baten bentaja dauka emana gazteak zarrari.

Ze ikusteko ote gaude illaren emezortzian?

Egi biurtuko ote azpeitiarraren ametsa?

Kukuak oker joko ete?

Denboraz jakingo degu, Jauna lagun.

Baserri

JOSE ESTORNES LASA-ri ESKARIA

Estornes Lasa jaunak hauxe dio behin eta berriz: «Begira ezazute oraingo «Zeruko Argia» bakarrik: bakoitzak nai dun bezela idazten du. Izugarrizko anarkia. Talde ortografiaren batasuna zatitu du. Eta au da gogorrena, batasunaren izenean. Eta zerbait bialtzen ba'degu, «h»z josia agertzen da, baimenik gabe».

Esaiguzu, mesedez, ea noizko «Zeruko Argia»n eta noren lana josi dugun «h»z. Esaten duzun hori proba zazu. Besterik ez.

ZUZENDARITZAK

Gipuzkoar lantegi txiki eta aundigoaren oiñarri sendoa



Lantegietarako diru laguntza

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL etxeak, industria egoera gogoan arturik LANTEGIAREN ALDE PRESTAMENAK eratua ditu lantegi txiki eta aundiagoek eskura dezaten.
Lantegi barruan makinaria aldatu bear duzula, lantegia eraberritu edo aunditu nai duzula eta kezkati bazaude, zure lasaipiderako LANTEGIAREN ALDE PRESTAMENA antolatua dugula jakin ezazu.
Zatoz eta inversioak zuzentzeko bear duzun argitasun eta laguntzarik gure artean aurkituko duzu. LANTEGIAREN ALDE eratu dugun diru babes eta laguntzaren ondorenak ikusiko dituzu.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

EROSI
1973 garrengo molde berrico gauzak



AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA
24 hilabeteko ordain-epeak
ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE PROBINTZI BARRUAN
DONOSTIAN MORAZA, 3-14 eta 15nean
IRUNEN SAN MARCIAL, 12nean

(c) Ministerio de Cultura 2005

Zilborretik lotuak

"Hau da jan behar tristea" esaten omen du txoriak adina jaten ez duen D. Jose M. Barandiaranek.

Mendirik aundiena baino aundiago den egia hau ahazturik ohi dugu sarritan. Duan edo debalde lan egitea eskatzen diegu askotan gure idazleei, abeslariei, bertsolariei, irakasleei, artistei... Ahaztu egiten zaigu nonbait sabeldun direla ere. Urdaila asetzeko ainbat ere ez diegu opa batzutan. Ez duela jateko eskubiderik dirudi euskalgintzan ari denak.

Baina ez goaz hortara. Beste zerbait gogorazi nahi genduke gaurkoan. Odol-usten, diru-usten, ondasun-usten ari dela, alegia, Euskal Erria.

Hau aspaldidanik gertatu zen Ipar Euskal Errian. Jauregi bihurtu dute Paristarrek, dirudunek eta jauntxoek atsedenhar eta josta ditezen. Jauregi kanpotarrentzat. Lur lehor eta gose bertakoentzat.

Horixe bera esan zigun Larresorok, Urtarrilaren 28ko alean, orain dela denbora gutxi. "Azterketa bildurgarri bat Lapurdiri buruz" egin zigun Bordaleko Unibertsidadean irakasle den Pierre Laborde jaunaren azter-lan bati jarraituz eta ezpalak atereaz.

Ondorio hontara irixten zen: "Lapurdi, beraz, Labordek frogatzen duenez, frantses burgesiaren bakantza-leku bihurtua da. Ez da hau gerta daitekean zerbait, baina zeharo gertatua den egia latza. Artean lanik ez, gazteek atzerrira jo behar, eta bertako handikiak axaleko sasi-arazoez arduraturik".

"Lapurdiko lurraldeak ez daude lapurtarren eskuetan".

Honen antzeko zerbait gertatzen ari zaio Ego Euskal Erriari ere. Hau garbi azaldu zen Donostian, oraindik orain, egin zen mahai-inguru batean. Elkarrizketa eta itzaldi haien berri ematen digu Aurtitzek Z. Argiako azken orrian.

Hiru aldi daude industrializatze hontan. Hirugarren aldi eta mailaraino iritxi behar du Erri batek bide hontan, ondasunez behar bezala ornitu nahi badu. Eskulan landugabean dihardu lehenengo aldian dagoen Erriak.

Euskal Erriak ez du oraindik erabat utzi lehengo lanbidea. Bigarren mailako industri-motan geratu dela esan dezakegu. Emen geldituda zuloan sartutako gurdiaren antzera ez aurrera eta ez atzera. Ez da irugarren mailaraino igarotzen.

Izan ere ez da geroari begira diru-jartzerik eta eraberritzerik egin gure lantegietan. Ez dago goi-mailako ezierarik. Ez dago ikasitako lanbiderako lanlekurik. Ihesi doan beste lurraldetara jende ikasia. Ihesi industria bera eta industri gizona. Jarioa dauka Euskal Erriko ondasun altxorrak. Ez da Euskal Erriaren muga barruan geratzen. Ez dator diru-laguntzarik. Horregatik esan dugu goraxeago odol usten ari den Erri dela. Ustutzen ari da emengo diru-putzua.

Il edo biziko kinka dugu hau. Arazo hontaz jabetu eta kezkatu behar dugu. Badaude aldizkari hontaz kanpo ere lanak euskeraz Siadekoren "Industria Herri baten azterketa", G. Ansolaren "Euskal Erriko ekonomiaz" ta abar.

Piskana piskana iltzera doa ekonomia sendotzen ez duen Erria. Ez du luzarora ez bere kulturarik, ez bere nortasunik, ez bere izkuntzarik, ez bere askatasunik gordeko. Zilborretik zintzilik dauka bizia. Hori lotzen bazaio lotu da beste gauza guztietarako ere.

AHOZABAL MUTUAK

Hitza merke edo erdi debalde dabil, gizarte ahozabal eta bihotz hestu hontan. Telebisioa, irratia, egunkariak, jardun eta jardun ari dira etengabeko emanean. Tabernara sartu zaitez eta lanak izango dituzu hitz egiteko txanda hartzen. Pentsa zitekeen, gure barnearen ispilu garbi litzakeela hitz joritasun hau. Gu gerana eta guk dioguna, bat etorri behar lirakeela, mahatsa eta ardoa bat datozen bezelaxe.

Gaur, inor dela uste duenak (eta uste ez duenak ere) erlazio sozial asko behar du izan. Bilera, afari, dantzatoki eta holakoetara sarri agertu, jendearekin harreman etengabean egon ahal izateko. Eta nor bere gorputzez iritxi ezin den tokietaraino heltzeko, hor dauzkazu telebisioa, egunkariak, irratia eta abar.

Urruti samarretik begirada bat botako balio norbaitek gure bizimodu honi, zera esango luke: «Elkarren berri jakin... Bai horixe; ba dute motiborik asko...».

Urrera dezagun objetiboa eta ikus, gure hitz moltzo hoietan, zer giharrea egoten den. Zertaz ari gera gure harremanetan? Eguneroko lanaren xehetasun txikiak, Realaren azkenengo partidua, eguraldiaren gorabeherak, sudurretako katarroa eta gisa hontako huskeriak dira ia gure betiko konbersazio gai.

Eta itxura batera, hauek dira gure ardura nagusienak. Kalean noiznahi ikusten duzun jendearen patxada eta aurpegi irriparretsua ikusi eta nork pentsa azpitik bestelakorik ezer legokeenik?

Gezurra badirudi ere, loa gal arazten diguten problemak, barnean korapilaturik darabilzkigunak eta gizon guztioi dagozkigunak ez dira ia inoiz aipatzen gure artean, zuzenki beinik behin.

Zeintzuk diran problema hauek? Bada amaikatxo. Batzuk datozkit burura.

Alde batetik, ezjakintasunak eragindakoak: Nundik sortu da gizona, gure herriaren historia... etabar... etbar... eta bestetik, nolabait esateko, existentzialak: Bakardadea, gure herriaren historia... etbar... eguneroko lanaren eta diruaren zentzua edo zentzurik eza, balore eta helburu jarraikorrik ez ikustea, ezertarako ilusiorik eza, maitasun beharra eta maita ezina, sexual problemak, geureak bakarrik diralakotan edo, hain zintzo gordeak, erlijioso galderak, problema ekonomikoak, familia arteko eraman ezinak eta hainbat eta hainbat drama ixil eta izkutu, komunikaziorik ezaren lurpean, patatak bezala haundituaz joaten direnak.

Abestruzak egiten omen duena egitea gustatzen zaigu guri ere, itxurea. Arriskua somatzerakoan, burua hondarretan sartu.

Ez ditugu aldamenekoaren kezka sakonenak ezagutzen eta gureak, geureak bakarrik direlakoan, ahazten saiatzen gera. Horrela, elkarren artean estrainio izanik, geure buruarentzat ere atzerritar bihurtzen gera. Ezin gera horrela, geure izateaz eta ahalmenaz jabetu.

Konturatuko bagina gure korapiloak, kalean irriparretsu ikusten duzun horrenak ere badirala, errezago litzaiguke gai hauek, inungo lotsarik gabe aztertzen eta korapiloak, elkarren artean askatzen.

Gure egoera, negargarria ez balitz, parregarria litzake. Beldur gera, nonbait, geure buruak diran bezala ikusteko. Beldur diogu egiari... Beldur libertadeari.

Jakina, gaurko egoera ekonomiko-sozialak, bere propaganda eta alienazio indar izugarriez, hontara bultzatzen gaitu, ostrazismo zaratatsu hontara, baina estruktura aldaketa bati begira baldin bagaude zerbait positibotik egiteko, egon gintezke lasai. Eta bestalde, gure buruaren haunditasun eta mugen kontzientzia hartzeak, hartara zuzenduak leudekeen estrukturen bilaketan lagunduko gintuzke.

J. M. ELEXPURU

EGUN EGUNEKOA

ETXEAN ARROTZ

Behin eta berriz esanda ere, Donostiako «Euskal Argitaldari» batek bere izkribuak Espainiako erdara hutsez bidaltzen dizkit. Iduriz, basamortuan oihuka naiz, aldatzeko itxurarik ere ez bait da nabaritzen.

Bilbotik etxez-etxeko saltzaile bat etorri zait, «Gran Enciclopedia Vasca» delakoaren liburuak eskaintzen (gehienak baita «Gran Enciclopedia Asturiana» egiten den hizkuntza ber-berean). Nik esan diot, euskaraz ez badaki bidal dizaidatela euskaldun saltzaile bat. Adios esatean «extremista» naizela jakin berri dut.

Aristoteles geroztik zail da jakiten erdi zuzena eta muturrak non diren. Bainan geure etxean edonork arrotzat jotzea ez ote da erdi zuzenetik urrunsko?

Daniel Ibargoiti



OHORE ZURI!

(Vitt Nam herriari gorazarre)

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
SAPELATZEN ATZAPARRETAN ERORTZETIK
BEGIRA ZATZAION HERRI HORRI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
EGUNDOKO SARRASKIA TA ONDAMENDIA
GARAITU DUZUN HERRI BIKAIN HORRI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
INOIZ EZ BEZELAKO GUDU HAIN GOGORRA
BURUTU AHAL IZAN DUZUN HERRI HORRI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
ADOREZ ETA PAIRAMENEZ LORTU DUZUN
GARAIPENAREN JABE ZERAN HERRI HORRI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
LURBIRAKO HERRI ZAPALDU GUZIEN
EREDU GOIEN JAIKI ZERAN HERRI HORRI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
ETA LOTSA GAIZTO ZU BELAUNIKO
IKUS NAHI IZAN ZAITUEN GUZIERI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
MUNDU ZABALEAN HEDA DEDILA
ELKARREN BESARKADAREN BERRI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
ERIZAIEN DEBANTAILA BEZAIN ARGI
ETORKIZUN ONGI MEREZIA ZURI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
EZ NUKE HIL NAHI LAZTANDU GABE
ODOL-IBAIEZ BUSTITAKO LUR HORI.

OHORE ZURI, VIET NAM HERRI HORI!
EZ LORERIK, HAUR BATEN IRRI GARBIRIK
NAHI DIZUT BAKAR-BAKARRIK ESKEINI.

Gaztelu

(1973-I-27)

Iñon ez da agiri bakerik

Bear bada, iskillu ekintza barik, lan eta aalegiñez egokiagoa izango zitzaion ameriketarraren laguntza Vietnamgo erriari: Indotxina guztiari.

Parisen, oraintsu, izenpetu dute Bake Araudia.

Vietnamgo ezker eta eskuiak: Vietcong eta albo errietakoak ere, bake izenez, azkatasun geiago lortuko ebien euron burrukarako. Ze, euron asarrea, askoz sakonagoa izan leiteke; gogo bi eta gizarte arazo bi dira dabiltzazanak eztabaidetan.

Ameriketarrek, Indotxina aldera, ezelako aurrepiderik ez dabe eroan dakigunez. Lotsagarrizko negarra eta eriotza bai. Eta onez gainera, milla urtetako izerdi eta lan egiñaren ezereza: birrinketa.

Anai arteko guda itsumendi onetan, diruzalearen irabazi andiak izango ziran noski. Diñoten au, betiko lelua da laterri andiren artean. Ostantzean, aztertu daigun, mundu guztiko erri aurreratuen artean,, zelako aserrea sortu daben ameriketarraren ekintzak Vietnam aldean.

Benetako Vietnamtarrak, ez dabe izan gura ameriketarren morroi. Azkatasun zaleak dira. Ikusi dogu Frantsesen aurka ere zelan jokatu ebien. An ez egoan komunisterik abertzaleak baiño. Maite ebien euron sorlekua; eta elburu onegaitik eskeiñi eutsoen euron bizitzea jaioterriari. Bai garaille ere urten Dien Bien Fu deritxon lurraldean. Eta gaur ere, ameriketarren aurka onetara jokatuten dabe; abertzalelez. Era askotako milla itz ibilli da aotan, komunismoa agerturik gaizferrik esan zuen besterik Spellman berrik esan zuen besterik Spellman Kardenalak.

Txiroa? Aberatsa? Abertzale benetakoak ez dau aldeztuten bere lurraldea aberatsa edo txiroa dalako, ezpa ere, legezko egiña dalako baiño. Eta ikusten dogu, eguzkipean diran sorleku askotako abertzaleen eginkizunak, zelan izaten diran bere azkatasunaren alderako. Onetara, euron odol eta bizitza, saltzen diote aberriaren arerioari, azkatasun ikurriñagaitik. Besterik ez. Eta egikera au, edonun izaten da txalogarria.

Azal zuria? Ona da, ona danean: baiña gaiztoa, gaiztoa danean. Beintzat, zuriaren buru-adimenetik urten dau gizaseme eta erri askoren eriotza. Gorrotoak eragin da edo? Gomutan izan Hirosima; Nagasaki; Gernika; Varsovia; Coventry eta onen antzeko eundaka erriri jaso zaizkion eriotza eta triskantzak. Akelarre oso bat zan. Apokalipsisaren antzekoa. Negarra! Eriotza! Gosea!

Anaia zeiñ lagun urkoari, kalte egiteko, ez dago ateorik ez kristaurik. Danok gara bardiñak txarrean: aldakuntza andi barik. Oberik beintzat, gaur arte ez da iñondik agiri. Tamala da esatea; baiña egia. Eta olan gaurko gizadi edo umanidadeak ezin dau jarraitu ez bizi. Barkamen barik: gorrotoz. Beti asarre. Beti gudan. Beti alkar ilten. Noz arte izango ote da gizona olakoa?

JULEN URKIDI

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A, Adoain, 1 IRUIÑEA
D. L.: NA. 80-1963

(c) Ministerio de Cultura 2005



zenbat gara

BERRIAK Otsailaren 6an. eratzeko zen Donapaleun (Baxenabrare) Amikutzeko euskal kantaldia. Hara ziren deituak Etxamendi eta Larralde, Sarasola taldea eta Benito Lertxundi guztiz ezagunak, bai eta beste hasi berri zenbait, hots, Amikutze bertako Etxepare, Baigorriko Martikorena eta Etxegoin garaztarra.

Azken bolada honetan urtero eratu ohi da Donapaleun era honetako jaialdi bat bertako ikastolaren alde.

● Agertu berria da Hendaiako "Haize-Garbia" deritzan elkarteak argitara eman duen hiztegiaren (francais-basque) delakoaren lehen alea. Bigarren alea, berriz (basque-francais), uda aurretik agertuko omen da.

Horrez gainera, apirilean azalduko da hiru hilabetetatik behin argitara eman ohi den "Haize Garbia" izeneko aldizkaria. Ale hau Pierre Loti zenari eskainirik agertuko zaigu batipat, haren heriotzaren 50garren urtebetetzean.

● Agindu baino apurtxo bat beranduago edo, agertu zaigu ere Euskalduntzen-2 izeneko liburua, izen bereko euskara ikasteko metodoaren bigarren alea.

Lehen alea joskerari zegokion batez ere, galda-erantzun errazetan barrena euskararen lehen lehen mailako hastapenak adiaraziz. Bigarren honek, bestalde, deklinabidea eta aditzaren lehen urratsak eskaintzen dizkigu.

Dakigunez, metodo honek benetan harrera ona izan zuen euskara ikasi gurarik ari direnen artean. Euskal Herrian ezezik, beste zenbait naziotan ere izan zuten honen berri, eta halaxe eskatu ere, Coloniatik (Alemania) ale bat eskatu ziguten behintzat geuri.

● Garai onez aipa ahal izan genduenez, Urruzunoren omenetan Elgoibarren eratu ziren saioen artean, Elgoibarko idazlearen Iru-Ziri izeneko antzerki saioak beste edozeinek baino harrera eta arrakasta hobea izan zuen. Hain ona eze, Mendaron ere aurkezteko asmoa sortu bide da, ez bait zen alferrik Pedro Migel Urruzuno Mendaroko Agustina monjen kapeilau izan amaika urtetan.

● Otsailaren 3an., Soraluzen (Plazentzia), Ramiro Larrañagaren "Ramon de Gorosta (biografía de un armero de la cuenca del Deva y apuntes sobre armeria)" deritzan liburu berriaren aurkezpena izan zen.

Honako liburu hau "Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones" delakoak argitara emana dugu, eta gehien bat sasoi batetako Plazentzia bertako giroari atxikirik den arren, arras interesgarri dakiguke plazentziar ez garenoi ere —Deba eskualdekoei behinik behin— harmangintzaz eta bestez ematen duen hainbat xehetasungatik.

● Bertsolariek ere badute beren elkartea, bai eta beren "aldizkaritxoa" ere, edo hobeto esan, beren bi orrialdeak, Nafarroako "Principe de Viana" aldibkariari esker hilero hilero argitaratzen direnak.

Baiña, noski, elkartea politto arituko bada, diru-laguntza ere behar du, eta ez harako aldizkaria ordaintzeko —Nafarroako Diputazioak dohan eskaintzen bait du— gainontzeko gastutxoak nolabait arintzeko baizik.

Hau dela eta, urte berritan gaudelarik, garai ona dateke nork bere kuota ordaintzeko. Ez da askorik, 50 pezeta baino ez, alegia. Egoki lizateke denok lehen bait lehen ordaintzea, honako zuzenbide honetara korreotako jiroz bidaliz: A. Santiago Onaindia. Amorebieta-Larrea (Bizkaia), otsailaren 15a baino lehenago.

ANTZERKI LEHIAKETA Tolosako C.I.T. (Centro de Iniciativas y Turismo) delakoak eraturik, antolatzeko da Tolosan bertan I Antzerki Lehiaketa. Honako lehiaketa hau bi hizkuntzatan izanen da eta antzerki talde afizionatuentzat soilik burutua, baldintza hauen arauera:

1.—Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako antzerki talde afizionatu guztiek parte hartu ahal izanen dute, euskarazko nahiz gaztelaniazko antzerki lanez.

2.—Aurkezpen bakarra Tolosako Iparragirre Antzokian izanen da, arratsaldeko 8tan., denboraz jakinaraziko diren egunetan.

3.—Bizpahiru taldek obra berdinaz presentatuko balitz, izena ematen aurren izan denari emanen zaio aukera. Gainontzekoek beste obraren bat aurkez ahal izanen dute.

4.—Zinema eta Antzerkitako Zuzendaritza Orokorrari egin beharko zaio eskabidea eta bestelako baimenak. C.I.T. delakoak lortuko ditu. Honetarako, talde bakoitzak nork bere xehetasunak agearrazi beharko ditu. Autore Elkarte Orokorrari dagokion baimena, aldiz, taldeek berek lortu beharko dute.

5.—Aurrez izendatu eta jakinaraziko den epai-mahaiak lehen mailatako taldea hautatuko du, antzerki lanaren zailtasuna kontutan izanik, bai eta obraren moldaketa eta taldekoen antzezpena.

6.—Harako epai-mahaiak hautaturiko taldeari 25.000,— ptako. saria emanen zaio, gainontzeko guztiak maila berdinean utziz.

7.—Horrez gainera, lehiaketa honetan parte hartzeagatik soilik, talde bakoitzari 5.000,— pta. emanen zaizkio laguntza gisa.

8.—Izenak ematea izkribuz egin beharko dira, 1973 otsailaren 15a baino lehenago, xehetasun guztiak ezarriz eta honako zuzenbide honetara bidaliz: Centro de Iniciativas y Turismo, San Juan Kalea, Tolosa.

9.—Tolosako C.I.T. delakoak —lehiaketa honetako eratzaile delarik— arau hauk aldatu eta gehitzeko eskubidea izanen du.

10.—Lehiaketa honetan parte hartzeak berak, berezko du hamar baldintzokin ados egotea.

SANTA AGEDA ren 5ean., Santa Ageda eguna Joan zen astelehenean, otsailaospatu genduen. Bezperan —eta bezperaren bezperan ere, aurten igande zenez— Euskal Herri guztian barrena edozenbat talde atera zen kalez kale eta etxerik etxe, egunari eta ohiturari dagokien hainbat kopla zahar oroitaraziz.

Hiriburutan nahiz herritan, hala herrixka eta hauzo txikienetan ere, konta ahal ezin besteko gazte taldeek etxeko andrea goraldu zuten, eta etxeko jaunaren patrika, berriz, arindu. Dirutza polita bildu ohi du zenbait taldek egun hautan. Batek honelako edo horrelako gaixotegirako, bestek premia gorrian aurkitzen den familia baten batentzako, edo batek daki zer zuloren betegarri. Beste zenbaitek, ordea, harako ikastolaren alde, edo ikasketak ordaindu ondorengo ostera bat ordaindu gurarik. Bai eta, bat baino gehiagok zoritxarrez, nolabaiteko afaria eta "kafe completua" ordaintzeko; hemen, beste edozein tokitan bezalaxe, denetariko fruituak eman ohi ditu gure Arbola Santuak eta.

Noski, herri kozkorretan izan ohi dira, gehienetan, talderik jatorrenak, eta ez berezko merituz, denok elkar ezagutzen dutelako baizik. Herrietan sortu ohi dira, bestalde, koplari aukerakoak, beti betiko doinu eta bertsoak ezezik, takian potian bertso berriak ere burutzen dituenak, gure ahozko literatura zaharraren aberasgarri. Hala nola Elgoibarren German Uriguen "Etxegiña" eta Mendaron Joxe Zubizarreta "Armaitxa". Baina, behar bada, dotoreenak motrikuarrak, Tomaz Maiz "Okelar" koplariaz gainera, Azpillaga bertsolaria ere berekin izan bait dute kantetan. Izan ere, besterik ezean, ariketak egiteko eta trebetasunik ez galtzeko primeran etor dakizkioke Juanito Azpillagari Santa Ageda bezperako bertsoaldiak.

Baina, herrietan ezezik, hiriburuetan ere —hego aldeko lau hiri nagusietan bederen— atera zitzaigun makinatxo bat talde. Gasteizen bakarrik hogeita lau. Nork eskain dezake gehiago?

● Gu geu Santa Agedan bertan izan ginen bezpera egunean. Santa Agedan edo, hobeto esateko, Gesalibar-en, zeren, zenbaitek ez badaki ere, ez bait da Arrasaten Santa Ageda izeneko hauzorik. Aramaionarako bidean dagoen Santa Ageda zoroetxea Gesalibar-en dago, Gesalibar bait da hauzo izena eta Santa Ageda, aldiz, bertako elizarena soil soilik.

Hantxe bertan ginen hilaren 3an. hauzoko jaiak zirela eta. Zarata eta abarra, ohi denez, eta jai giroa nahiz hauzo txikia izan. Etxeratzekotan ginela agertu ziren lau gizonezko handi, berrogeitaka urte luzeak bai, bata zein bestea pagoa bezain zabal eta haritza haina trinko.

—Gabon —esan zuten.

—Gabon ba, zer dago onik?

—Ba hamentxe, jaixak dirala-ta...

—Ez zarie hamenguak ala?

—Ez, gu arabarrak gaittuk, Aramaixokuek.

Eta zirikatu nahian:

—Bah... orduan ez arabarrak eta ez ezer, erdi giputxak!

—Ez bata eta ez bestia, aramaixoarrak.

Eta ezkonduak zirelakoan edo:

—Eta zertan zabizie ba andrak etxian lagata?

—Andrak? Guk ez xuagu andrarik. Bizi guztixa pasau xuagu gure dotriñiau zaindu gurarik eta... oiñ ostera abadiok alperrik galdu xakuz.

—Bueno, bueno, horrek zer dauko baiña zer ikusirik?

—Ez xok ba eukiko! Lehen pekatu zala, pekatu zala, eta oiñ dana libre danean... EZIN!!

GOIZ-ARGI GOIZ-ARGI hilerokoa hamabosteroko bihurtu zaigu. Hona hemen azken berria, soila bezain pozgarria. Izan ere, euskaldunak garen aldetik behintzat, guztiz pozgarri da, bai, gure euskaldungoan barrena sort daitezkeen aldizkarien hedadura eta urratsez urrats goragoko mailatara irixtea.

Aniztasun edo pluralismo delakoa behar genduela esaten zigun —nola esan gero!— astekari honetako Zuzendaritzak duela hiruzpalau (72-XII-31) astetako editorialean:

Euskaldungoa da guretzat oinarri eta lokarri, egiten joan behar dugun euskaldungoa, bere baitan demokrazia eta ondasunen berdinagoa egosi dituen euskaldungoa nolabait esateko. Horren barruan onartzen ditugu beste koloreak. Hortik at ez.

Honetan gaude gu ere, muga berberoitan aniztasun hori onartzen dugularik. Hala datorkigu ere GOIZ-ARGI. Hamabosteroko bilakatu zaigula esan dugu, hala entzun dugu eta hala izanen da noski, gu geu duda-mudatan bagaude ere. Nahiago genduke, noski, hala balitz, baina beldur gara ez ote dagoen hori oraindik ikusteke. Mintza gaitezen argiago, lehen bait lehen, eta ez dezala inork kritika ezezkortzat har, eraginkortzat baizik, GOIZ-ARGIk nahi lukeen euskerararen alde abia ahal izan gaitezen.

Noski, errazena dateke —nahiko zaila delarik berau ere—, hileroko bat hamabosteroko bihurtzea, hau da, hilean behin ale bat argitara eman beharrean bi argitaratzea. Baina hau ez da nahiko, ez eta gutiagorik ere, aldizkariaren beraren moldeak eta erak aldatzen ez diren artean behintzat.

Esate baterako, honelatsu ikus dezakegu —ideologiak, iritziak, setakeriak eta beste alde batetan utziz, kazetaritzaz soilik aztertuz—, Bizkaian badela hama-bosteroko bat bertako astekari bat bezain "astekari" dena. Edo hobeto esan, astekari hori ez dela, funtsean, "astekari" —gaiez, gaurkotasunez, bizitasunez—, hamabosteroko eta zenbaitetan hileroko baizik. Izan ere, hilerokotzat sortu zenez gero-ia bere eskemak aldatu ez baditu... zer besterik izan daiteke astean behin argitaratzen den "hileroko" bat baizik?

Honela ba, eta dagoeneko, GOIZ-ARGI hamabostean behin argitaratuko zaigu. Berriz diogu, poztutzen gara poztu. Zorionak bihotzez horrelakorik posible egin dutenei. Kazetaritza zentzuak baino bestelako konpetentzia giroren batek sortarazi egin badio ere, berdin, hasteko nahiko da, ez ordea jarraitzeko.

Ez genduke nahi besterik, gure hitz apal hauek zenbait burutapen sort dezaten baino, euskal kazetaritzaren onetan, zeren... euskararen alde... euskararen alde... betiko lelo hori oso urrun eta eskar gerta dakiguke jadanik.

Euskararekiko erdarazko apologiak gainditu genituen. Ea orain euskararekiko euskarazko ihardunak ere gainditu edo gainditu edo gutitzen ditugun behintzat. Euskara salbatuko badugu, tresna arin, praktiko eta baliagarri bihurtu behar dugu, albiste tresna bilakatu, alegia. Euskara berari baino euskaraz zer esanen dugunari garrantzi gehiago emanez, euskara bera baino euskalduna interesgarriago bait zaigu.

Honetan, euskaldun irakurle horri zerbait eskainiko badiogu, kazetaritza bizkor bat behar dugu, gaurkotasunez betea. Eta honetarako ez zaizkigu aski bertsolariak, poetak, nobelagile eta kondairagileak, are gutiago hizkuntzalari eta azterlariak. Kazetaritzaz kazetariak behar ditugu. Gauza xinplea, noski.

ARABA Arabako Diputazioak euskararen onetan zenbait erabaki hartu du Lejarreta jaunaren zuzendaritzapean eratu berri duen azken biltzarrean.

Hartaz agerarazi den agiriak dioenez, Arabako Diputazoak betidanik izan omen du euskararekiko halako begiramendu bat, ez bait da alferrik euskara bera arabar arbasoen hizkuntza, eta haiengandik jaso dugun altxorrik bereziena.

Diputazioak kontutan du ere, oraindik orain euskara bizi dela Aramaiona bailadan, bai eta Gasteizen bertan ere, non milaka dira lanbidez joandako giputz eta bizkaitarrak —Deba bailadakoak batipat—, bai eta Gasteiz bertako euskaldun berriak ere.

Hauk honela, UNESCO nazioarteko erakundeak herri hizkuntzaz agerarazi dituen iritziei atxiki, bai eta Espainiako Heziketaren Lege Berriak honetaz aipatzen duenari jarraituz ere, honako hiru puntu hauk ontzat eman ditu Arabako Diputazioak:

—Zabal dadila Arabako haur eskoletan barrena "Kili-kili" izeneko metodoa, nahi duten haurrak hartaz balia daitezen, eta erakar ditzakeen ondorio eta abantailez jabe daitezen.

—Korreoz eman ohi den "Kili-kili" metodo honek sort ditzakeen gastuak Diputazioak berak ordain ditzala.

—Aurreneko bi puntu hoi egia bilaka, eta asmo honetaz ager daitezkeen betekizun eta premia guztiak erabat konpondaitezon, Kultura Batzordeari aukera eta behar haina aginte emanen zaio, bere ustetan hartu beharko dituen erabakiak har ahal ditzan.

Honaino, guti gora behera, eta berri soila emateari dagokion laburpena eginez, Arabako Diputazioaren azken erabakia. Komeni litzaiguke Gasteizen dugun hainbat idazle jator honetaz mintzo zekigula, erabaki honen sakontasunaz, ondorioez, Arabako giroaz, herriaren harreraz eta bestez.

Gure aldetik ezer guti esan dezakegu. Jakina, zertxobait ematen duenari eskerrak baino besterik ez zaio, noski, zor. Hala ere, korreoz eman daitekeen metodo bat gutietsi gabe —are gutiago "Kili-kili", merezi duela ez bait dugu zalantzan—, esan beharrik ere ez, badituela bere baldintzak eta bere hala beharrezko mugaketak. Honela ba, gu geu galderatxo hau egitera ausar gaitezke: Arabako Foru Diputazio den batek ez ote lezake egin beste ezer gehitxoago? Ikastolak, ikastetxeak, ikastaroak —edo gutienik, hautaz saiatzea edo babes ematea— gehiegi ote dira Euskal Foru Diputaizo baten ahalmen eta gaitasunerako?

DENETARIK Urtarrilaren 31an. izan zen Bilbaon "Euzkerazaleak" delako erakundearen Batzar Nagusia. Beste zenbait arazoren artean, zuzendaritza eraberritzea zegokion harako batzarrari.

● Urtarrilaren 20an. lehen aldikotz aurkeztu zen Lapurdiko Itsasun "Etxahun" deritzan antzerki lana. Antzerki obra hau Larzabalek moldatua da, Etxahun bertsolari zaharraren bizitza samin bezain garratza oinarritzat harturik.

Antzerki lan honen muina Etxahunen bizitzaren pasarterik garrantzitsuenetako bat da, hots, Etxahunen emaztea hauzoko batekin konpontzen zelarik, hauzoko hori hiltzea erabakitzen du gure Etxahunek. Hala ere, ez ziren gauzak gertatu Etxahunek espero bezala, eta erruduna garbitu beharrean, gazte errugabe bat astintzen du gau ilun zorigaitzeko batetan. Ondoren etorri zitzaizkion presondegira joan beharra, emazte agintzailearen gorrotoa jasatea, munduz mundu ibiltari erromes eta Zuberoako herririk herri bertsotan ihardun izatea, etxeko maitasunik ezagut ahal izan ez zuenak, herriarengan aurkitu bait zuen nolabaiteko babesa.

Honako antzerki lan honek hain harrera ona izan zuenez gero bere lehen aurkezpenean, hilaren 27an. bigarren saio bat prestatu behar izan zuen "Gaztetxea"ko taldeak.

● Juan Jose Araolaza "Elgoibar-ko Izarra" izeneko elkartearen zuzendari izendatu berri dute. Elgoibarko elkarte honek mila inguru bazkide ditu, eta bere beste zenbait ekintzen artean aipagarri deritzagu 500 haur dituen ikastolari, bai eta euskara, txistu, euskal dantza eta beste hainbati ere.

Gutienik hamalauren bat urte, bai, Araolaza aurpegiz ezagutzen dugula, mutiko ginela elkarrekin ihardun bait genduen eskola berean. Geroztik ez dugu elkarren berririk jakin, duela pare bat urte arte, Elgoibarreon, Eibarren nahiz Bergaran eratu den hainbat hitzalditan —gu boligrafoz eta bera magnetofonoz— elkar ikusi dugun arte, alegia. Nork esanen zukeen gero orain dela hamalau urte, erdal girotan hezitako bi mutiko kozkor haik euskalgintzat elkartuko ginenik?

Gure zorionik sutsuenak Juan Jose adiskideari. Leporatu deuaten zama astunegi gerta ez dakiala opa deuat, zuzendari berri haizen elkarte horren eta Elgoibarko herri guztiaren onetan ager hadin.

● Hego aldean ezezik, ipar aldean ere nahaspilaren bat edo beste bada ikastoletan barrena, nahiz eta oraindik hasi berriak izan. Harako nahaspilak, hala ere, guztiz arrazoiz desberdinez sortuak dira han eta hemen. Hemengoak "aurrerakoiagoak" agian, hangoak, aitzitik, "sanoagoak".

Izan ere, hego aldeko ikastoletako hauziak "barrutik" azaldu zaizkigun artean, ipar aldeko zenbait ikastolari kanpotik datozkio trabak eta eragozpenak. Honela mintzo dira Mauleko (Zuberoa) Ikastolako arduradunak, ikastolak abertzaletasuna eragiteko sortuak direla salatu dutenei erantzuteko moldatu duen agiri batez.

Guk ez dakigu ipar aldeko ikastoletan abertzaletasunik eragiten duten edo ez. Dakiguna —edo uste duguna behintzat— halako abertzaletasun giro pitin bat ez letorkiola gaizki hego aldeko ikastolaren bati edo besteri. Ez eta, hemengo maisuren bati baino gehiagori ipar aldetik pasiada bat ere. Nork esan zezakeen halakorik duela hamar urte? Lekutara iritxiak gaude!

AMATIÑO

(c) Ministerio de Cultura 2005

Franziako Lege-Etxea (II)

Aurreko idazlanean esana da orain arte gehiengoaz jabetu ziran iru Alderdiak UDR buru agertzen ziralarik aldun diputadu mordozka bat gutiago izatea ziurtzat joten genduala orrela Martixan atarako dan gehiengoa mayoria, baldin bat ataraten bada, litekena dala itzul egitea eurei.

Eraberean ezkertar izeneko iru Alderdiak jaioko dan Jaurlaritza barri ortarako gertatu duten egitarau programa orren urbilean gehiengoaz jabetzea ez dala gauza egiña naiz eta eldun berri txorta bat irabazirik urreratuko badira ere.

Eretan deritzaigu aurrenengo agertzen diran jaun oiek euren bihotz barnean ez ote duten maiteago etsaitasun opozizioan jarraitu naiz eta itz jario beste era batera azaldu, ots, egiz nahi ote duten, beldur ez ote diran gabetik goizera agintari ager aitatutako egitaraua Gobernu barrian aurrera eramateko.

Mitterrand jauna gizon zuhurra da ta oraingoz asia da bere neurriak artzen. Badaki berak egitarau ori guztiz zalla izango zaiola zutunik eukitea, bere lagun komunistak gerra latza egingo diotela aurreruntz joan nahiko eskariaz zirikaturik bere izatea ainbat korapilloz josiaraziaz. Orrela aurreko egunetan mintzatua da eurak jabetuko diran ekonomiko-erri ondasuna zearoko txarra dala ta, UDR Jaurlaritzak utzia noski, ta beraz aztuna be aztuna agertuko dala artuko duten oien ondorengoa, bizitza gora ta gora dijoala salneurriak ala igoten dutelako t.a. Or nun erakusten duan beldur ez bada ere aiko maiko zalantza bizian dala esanak eta aginduak egikeran biurtzea, bat eta beste ez bait dira berdiñak, denporarik asko eramango diotela ta iñor ez dedilla uste ustelean murgildu. Gizon politiku azkarra da norbait bada, baiña UDR-ko aldun dan Sanguinetti oraintzu berarekin jardun luzea egiña da aurrez aurre ikus-irratian telebistan eta erantzun dio; diru kutxak bete-beteak dituzu ta guk zuek ez bezala aberastasun ori langilleak partizipazio bidez zalaparta barik gozartu dezaten nahi dugu.

Ori orrela ondoren komunisten aurreneko burua Marchais jauna itzaldi bat emana da berri-emailleen aurrez zearoko bildots agetua dalarik. Ezkertar batasuneko egitaraua Gobernuak aurrera eramateak ez omen esan nahi Franzian sozialista aginpidea ezartea danik eta gutiago komunistena.

COMBAT egunkariak (12.I.73) onela iardetsi dio;

«...atzo Marchais jaunaren ahoz P.C.F. ren eskaerak ain ergelak, ain itoak agertzen dira ze zalantzan gelditzen gera bere ideiak ote duten indar. Idazkari naguziaren esanetan biltzen bagera ezkertarrak eta oraingo gehiengoak, mayoriak gizarte berbera aldezten dute ezkertarrak ase diralarik zerbaitetan bakarrik zuzendu arazteko asmoz.

Jakiña da zakarkeri barik joan behar dute gauzak, ez da egun bateko egitea ain denpora luzean kapitalista gizartean oitutakoak sozialista aginpidera eramate ori.

Baina ain bigun,, ain begirakor agertze orrek ez ote arrisku igarokor izate batera eramatea, ots kapitalismu konpondu batetan bertan gozo jarraitzeko ta guztiz urruti agertzen dana oraindik komunistaren alde autarkia ematen dutenen nahi ta ametsak komunista gizarte batean siñistatzen dutelako.

Esan litekena da ta zer, ori komunisten euren egitekoa beste ez da. Baina ez, komunista ez diran ezkertarrak eta Marchais jauna baño egonezin aundiagokoak eta onen zurtasun ori guztiz mikatza ta guztiz ez-egoki deritzaiotenak daude».

Politiku jokoa benetan da gero egingaitz, jendea irabazteko eztia ozpina baino obea dala jakinik Marchais jauna orrela mintzatu zitekean edo naiz bere zentzun zintzoan orrela dala bide uste izanik, bestalde ezkertar askorentzat joko ori lorea urez itotzea da.

Batez ere ezkertar ezkertiarrak «gauchiste» izenaz ezagutzen diranak esan oien beharrik ez zuten lehen baino gehiago bihotz-bihotzez gorrotatzen jarraitzeko P.C. zuzendari agintari direnak batez ere. Urbedeinkatuaz egositako babarrun jale ez diran ezkertar ezkertiarrak beti esan dizute komunistak ez diala ezkertar izena merezi dutenak, ez dirala kideko sartu litekezenak.

Esanak esan lagunduko diote batasunezko egitarau ori irabazle izan dedin. Ez dira indar aundiko auteskunde arlo ontan, guti dira, Alain Krivinek lehenago izan zituan autarki botoak 230.000 orta gelditu ziran % bat inguru. Aurten askoz obeto egitego oi dira, ta beste ainbeste gizentzen badira galburu guziak dira on opilla egiteko.

Irrikatzen daude ezkertarrak irabazi dezaten, bide erdian gelditze ori oinkada bat beste ez omen da eurentzat eta klase burruka gogor bat sortuaz lantegietan iraultza bide bat irikiko omen. Lantegietan zearoko indar aula dute baina sarritan gauzak bere onetik atarateko zenbait ausarti aski dana zilipurdikatzeko. Onetan mutillak dirala ere danok dakigu.

Bare-bare joango zitzaizkion egunak ez dituala ezkertar Gobernuak berak ere izango usmatu diteke.

Paris 15-I-73
ALBERDI TAR ANDOLIN

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chapeitia
Geteria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

Vietnamgo kondaira gorria

Ez, pakerik ez da oraindik sortu. Guduaren gelditze bat lortu da. Ez da gutxi alaz ere. Vietnamiak bere gain daraman zama, beldurgarria da. Aspaldidanik jasan behar izan duena da gainera. Jendeak egia au ahazturik daduka. Orregatik Vietnamiako guduaren historia edo kondaira txiki bat bederen egitea pentsatu dut. Kondaira au bestalde 1954 urtetik asi eta egingo dut, Ginebrako erabakietatik asirik, alegia. Kondaira onen bidez Vietnamiako arazoa obeto ulertuko dugu.

1954 URTEA:

Uztailaren 21ean, **Rusia, Bretaina Andia, Frantzia, Laos, Kanboia, Txina eta Ipar Vietnamiak erabaki batzuk artzen dituzte Ginebran. Ordura arte Vietnamia Frantziaren kolonia zen. Frantziaren aurka egin zuten borroka batipat Vietnamiarrek. 1954 urtea baino lehen vietnamiarrek amar urte pasa zeramazkiten borrokan. Beraz, arazoa aspaldidanik dator. Ginebran artutako erabakiak auek izan ziren: gudua bukaturik, gauzak daudenean iraungo dute. Ipar Vietnamian komunistek jarraituko dute buru eta Ego Vietnamian frantsesek ezarritako Bao-Dai enperadorea izango da buruzagi. Ez Ipar aldeak eta ez Egoaldeak, aurrerantzean, inortxoren laguntzarik, arma laguntzarik, alegia, ez dute artuko. Bestalde gauzak daudenean iraungo dute 1956 uztailera arte. Izan ere il orretan Ipar eta Ego aldeak elkar arturik auteskundeak egin beharko dituzte. Auteskunde orien bidez, Vietnamia guzirako gobernu bat aukeratuko zen; Vietnamiak bat egingo zuen.**

Erabaki autan, gogoan izateko gauza da, Bao-Dai enperadoreak eta Ipar Amerikak ez zuten parte artu.

Urte onetan bertan, Ipar Amerikarrak eskua geroz eta gegehiago sartzen asten dira. Ipar Amerikarrek lehen frantsesei laguntzen zieten, aurrerantzean, zeharka ezertan ibili gabe, zuzen zuzenean Ego Vietnamiako gobernuari lagunduko diotela agintzen dute.

Urriaren 27an, Eisenhowerek Diem lehen ministroari idazten dio osorik bere alde dagoela adieraziaz.

1955 URTEA:

Urte onetan ez da gudurik izan. Diem lehen ministroa Ego Vietnamiako buruzagi bihurtzen da. Bao-Dai, Frantzian Cannesen bizi den enperadoreari agintaritza kentzen dio Apirilaren 30ean. Dien militarra lehen ministro bezala Ipar Amerikarrek ezar erazi zuten. Orain diktadura gogor baten bidez jaun eta jabe egingo da. Gizon onek 1963 urte arte iraungo du.

Apirilaz gero, bestalde, Ego Vietnamian ziren beste talde politiko guziak zigortzen eta espetxeratzen asten da Ginebrako erabakiak autsiaz.

1955 urtetik 1960 urtera arte 400.000 pertsona espetxeratu omen zituen, eta 60.000 pertsona ilerazi.

Urriak 23: Il onetan Ipar Vietnamiarrek auteskundeak egiteko aurkezten dituzten eskeinketei ez die Diem buruzagiak erantzuten. Postura au Ipar Amerikarren aholku edo kontseiluari jarraituz artzen du.

1956 URTEA:

Urtarrila - Otsaila: **Diem katolikoak gogor erasotzen die erlijiozko beste taldeei.**

Otsaila, 23: **Erbesteko arazoetarako izendatua den Pineau ministro frantsesak Ipar Amerikaren jokera gaitzsten du, Frantziaren itzala ahultzen ahaleginak egin dituela Ipar Amerikari adieraziaz.**

Apirilak, 28: **Frantziako soldaduak etxeratzen dira. Frantziak ez du indarrik Diem buruzagiari Ginebran artu ziren erabakiak onar erazteko. Uztaila igaroko da eta Vietnamian ez da auteskunderik izango. Diemek eta bere Iparamerikar lagunek nahi zutena lortu dute.**

1957 URTEA:

Urriak, 31: **etsai guziak zapaldu eta pakea sortu duela dio Diem buruzagiak. Urte onetan ez da gudu berezirik izan.**

1958 URTEA:

Gudua an eta emen asten da. Ipar Vietnamiak ez du parterik artzen borroka orietan. Ego Vietnamian bertan sortzen dira borrokak. Gainera, aldi aretan Ipar Vietnamiak joko politikoaren bidez gauza konpondu zitekealakoan zegoen. Ez alferrik.

1959 URTEA:

Uztailak, 8: **Diemi laguntzen ari ziren Ipar Amerikar teknikoak iltzen dituzte. Sinbolo bezala asko esan nahi du gertaera onek.**

1960 URTEA:

Apirila: **Diemen, sei ministro altxatzen dira, Diem gaitzetsiaz.**

Iraila: **Ipar Vietnamiak borrokara deitzen die Vietnamiar guziei.**

Arazoa: **Kennedy, lehendakari autatzen dute Ipar Amerikan.**

Abendua: **F.N.L. erakundea osatzen da gartzelan dagoen abogadu bat buru duela.**

1961 URTEA:

Maiatzak, 4: **Ipar Amerikak laguntza andiagoa agintzen du.**

Abendua: **Kennedyk 16.000 milla teknika kontseilari bidaltzen ditu Vietnamiara. Abiazioa, Ipar Amerikako abiazioa, asi da lanean lurrak eta pertsonak kiskaltzen.**

1962 URTEA:

Gudua zabaltzen da. Ipar Vietnamiarrak parte artzen asten dira gudu onetan, bere gizonak bidaliaz. Orain arte lagundu bakarrik egin zuten. Orain berak ere parte artzen du. Ipar Amerika ere asi da bere militarrak bidaltzen. Kontseilariez ez zaio aski.

1963 URTEA:

Azaroa: Diem buruzagiak agintaritza galtzen du. Beste militar batzuek artzen dute agintaritza. Urte pare batean Ego aldean agintari aldaketa asko izango da. 1965 urtean Thieu jaunak artuko du eta gaur arte bera izango da agintari. Diem agintaritzatik botatzen, Ipar Amerikak berak ere parte artu zuen. Ipar Amerikarren konfiantza galduta zedukan. Ori gerora jakin da.

Azaroak, 22: **Kennedy eho dute.**

1964 URTEA:

Abuztuak, 5: **Ipar Vietnamia bonbardeatu dute Ipar amedikarrek. Il onetan bertan Johnsonek eskubide andiagoak lortzen ditu Parlamentoak emanik. Bonbardeatze orren aitzakia Tonkinen gertatua izan zen. Itsaso bazter aietan, izan ere, Ipar Vietnamiako gudu-ontziek eraso omen zieten Ipar Ameriakako gudu ontziei. Gero jakin danez, Johnsonek dena ongi prestatuta zeukan gauza izan zen. Ipar Vietnamiarrak xaxatu zituen Tonkin aldean, gero berak bonbardeatzeko aitzakia izateko. Arrigaria gizon onen jokabidea. Munduaren aurrean oso pake zale azaltzen zen, baina azpitik gudua nola zabaldu eta indartu zebillen. Gauza auk, duela bi urte jakin ziren, ain zuzen izkutuan arkitzen ziren paper batzuk argitara eman zirenean. Ipar Amerikarren jokoa garbi ikusi zen, ikusi nahi zuena behintzat.**

1965 URTEA:

Uztailak, 29: **Vietnamiara 125.000 soldadu bidaliko dirala aditzera ematen du Johnson "pake zaleak".**

Urte onetan, Ipar Vietnamia bonbardeatu gabe gelditu zen egunik ez zen izan.

Urte onetan, bestalde, Thieu egiten da Ego Vietnamiako buru, oraindik berak jarraitzen du, gaur egun.

1966 URTEA:

Urte onetan budista askok beren buruari su eman zion. Budistek urte onetan gogor egin zuten borrokan.

Apirilak, 12: **B 52 abioi igarri oriek asi dira Ipar Vietnamia bonbardeatzen. Abioi auek dira Ipar Amerikak dituen abioi andienak.**

Ekainak, 29: **Hanoi lehendabiziko aldiz bonbardeatua izaten da.**

1967 URTEA:

500.000 Ipar amerikar soldadu arkitzn da Ego Vietnamian. Urte onetan borrokan gogor ari dira. Ipar Vietnamia ere buruz murgiltzen da borrokan. Urte au Ipar amerikarrentzat txarra izan zen.

1968 URTEA:

Ikaragarrizko manifestazioak mundu guzian eta batipat Ipar Amerikan. Mundua esnatu dela dirudi. Johnson ez da auteskundetara presentatuko, izan ere ez baitzituen irabaziko.

Urriak, 31: **Ipar Vietnamiaren aurkako bonbardeoak aurrerantzean ez dutela jarraituko adierazten du Johnsonek.**

Urte onetan bertan, Maiatzaren **10'ean Parisen elkarrizketa batzuk izaten dira Ipar Vietnamia eta Ipar Amerikarren artean.**

Azaroa: **Nixon lehendakari autatzen dute Ipar Amerikan.**

1969 URTEA:

Maiatzak, 14: **550.000 soldadu daude Vietnamian. Nixonek plan berria azaltzen du.**

Ekainak, 8: **Nixon eta Thieuk elkar ikusten dute. Nixonek 25.000 soldadu etxeratuko dituela adierazten du.**

Abuztuak, 4: **Kissinger eta Ipar Vietnamirrek elkar ikusten dute lehenengo aldiz Parisen, inork ezer asko jakin gabe.**

1970 URTEA:

Urria: **Ipar Amerikar soldadu guziak etxeratzeko prest dagoela esaten du Nixonek. Urte onetan, alaz ere 400.000 ipar amerikar soldadu arkitzen dira Vietnamian.**

1971 URTEA:

Apirilak, 7: **Beste 100.000 soldadu etxeratzen dira. Ipar Amerikara, alegia.**

Maiatzak, 31: **Nixonek pake programa bat azaltzen du zortzi puntutan.**

Uztailak, 1: **Thieu eta Ipar Amerikarren aurka borroka ari diren izenean beste programa bat aurkesten du zazpi puntutan.**

Azaroak, 12: **Nixonek beste soldadu asko etxeratzen du. Bere plana aurrera dijoa: gudua vietnamiartu nahiz eta abioeiek gogor eraso. Etxeratzen dituen soldaduak infanterikoak dira eta ez abiaziokoak.**

1972 URTEA:

Ipar Vietnamiak inoiz jasan duen abioi erasorik gogorrenak jasan behar izan ditu urte onetan.

Alaz ere Kissinger eta Vietnamiarren artean elkar izketak jarraitzen du.

Gudua, bestalde, urte onetan izan da gogorrena, nahiz eta Ipar Amerikar soldadu gehienak etxeratuak izan. Nixon urte onetan oso pake zale azaltzen da, zinez ordea. Vitnamiak jasan duen txikiziorik andina, urte onetan nabaitu du.

1973 URTEA:

Urtarrilla: **Guduaren geldiunea. Noiz arte? Zer esan nahi du Gudua gelditze onek? Pake bide bat al da? Zer asmo ditu Nixonek? Beste galdera asko egin daiteke; gehienak erantzunik gabe gelditu ko dira. Geroak esango du bere itza eta ikusiko.**

J. ELUSTONDO

(c) Ministerio de Cultura 2005

Pedro Migel Urruzuno-ren Omenez Elgoibarren

Kazetaritzaz mahai biribila eta Euskaltzaindiaren bilera

Mahai bururuaren alderdi bat: Julene Azpeitia, Pierre Lafitte, Antonio Arrue, Jean Haritxelhar, Luis Mari Ulazia, Anjel Ajubita eta Aita Villasante.

Urtarrilaren 17tik. 28ra. bitarteko hamar egun luzeetan barrena, Elgoibarren eratu da bertako seme ospetsu, apaiz langile, idazle umoretsu eta lehenetariko euskaltzain laguntzaile izan zen Pedro Migel Urruzunoren omenaldia. Dakikegunez, egitarau guztiz herrikoia "Ongarri" Elkarteak Urruzunoren oroitzapenetan prestatu duena, behar bada halako saiotara ohituegi ez dagoen herri bati zegokiokeen eran edo. Egunak, bestalde, aukerakoak, zeren Urruzuno hil zela berrogeita hamar urte betetzeaz gainera, egun hautan ospatu ohi dira Elgoibarren San Anton jaiak. Beraz, alde batetatik ezin bestetatik, benetan jai giroa Elgoibarren.

Egitarauan zehar ikus ahal izan genduenez, hitz batez denetarik izan da Elgoibarren harako hamabi egunen buruan, haur jaialdiak, kantari eta bertsolari saioak, pintatzaile erakusketak. haurren pintura, eskulan eta argazki sariketak, hitzaldiak zein antzerki saioak, baserritarren feria, liburu azoka eta beste.

Denak banan banan aipatu ezinean, aipa di-tzagun gutienik azken bi egunetako saiorik berezienak, elgoibartarrei ezezik, euskaldun orori ere erabat dagozkigunak bait dira, larunbateko (1-27) euskal kazetaritzari buruzko mahai biribila eta biharamunean ospatu zen Euskaltzaindiaren bilera, alegia.

MAHAI BIRIBILA

Hilaren 27an. eratu zen mahai biribila astebete lehenago eratzekotan burutua zen, programari bagagozkio behintzat, eta Juan San Martin euskaltzain idazkariaren zuzendaritzapean. Hala ere, ez zen ahal izan San Martinen gaixoaldi bategatik, lehenik, eta programazioaren beraren atzerapenagatik gero. Dena dela, hurren larunbaterako utzi zen, Jabier Aranburu kazetalaria mahai zuzendari berri bezela izendatu eta gero.

Baina, nonbait, kazetaritzari buruzko mahai biribil honek ez zuen nahi, antza, bide erosoetan zehar ibili, eta hara non Aranburuk etor ahal ezina jakinarazi zuen, egun berean beste biltzarren bat bait zuen Baztanen. Honela ba, zer egin? nora jo? Antolatzaileak Imanol Laspiurrekin mintzatu ziren, nolabait hartan lagun zezaien. Bai erantzun ere Imanolek, ohi duen prestutasunarekin, bai eta azken orduan buru belarri darazoari kementsu atxiki ere, gero ikus ahal izan genduenez.

Antolatzaileengandik jakin genduenez, zortzi aldizkariri bidali zitzaion harako deia, kazetaritzaz mahai biribil hartan parte har zezaten: AGUR, ANAITASUNA, EGAN, GOIZ ARGI, JAKIN, KARMEL, PRINCIPE DE VIANA eta ZERUKO ARGIA aldizkariei, alegia. Baionako HERRIAZ ez ziren, ez, ahaztu, baina arrazoiren bat edo bestez, telefonoz eta deitu nahian ihardun arren, ez zen posible izan ezer egiterik, antolatzaileen beren eta ez beste inoren erruz —aitortu zutenez—. Hala ere, diogun haien aringarri, zerbait egiten dutenei gertatzen zaizkiela akatsak, eta, ez, noski, patxadan ezertxori ekiten ez diotenei.

Dena den, aipatuak aipatu, ez genekien mahai biribila hasiaurretik zein aldizkaritako ordezkariak etorriko ziren, inork ez bait zion deiari zuzenki erantzun. Herriarengan harako mahai biribilak harrera onik eraginen zuenik ere ez jakin. Beldur ziren elgoibartarrak: Batek daki nola erantzungo dauan jendeak *—ziostan Felix Etxeberriak ordu erdi lehenago—.* Astearteko hitzaldian hogeitaka bildu ginen; «Iru Ziri» antzerki saioan, berriz, gainezka, ezin sartu ezinik, istilu eta guzti! *Pixkanaka, pixkanaka jendea hurbiltzen hasi zen, hala ere, eta azkenean, inork uste ez izan arren, leporaino bete zen Urbitarte deritzan aretoa, jendeak kazetaritzaz duen kezka erabat agerraraziz.*

Aldizkariek, aldiz, ez zioten erantzun herriaren harrera on hari, bi aldizkaritako arduradunak baino ez bait ziren azaldu, ANAITASUNA-ko Yosu Torre eta ZERUKO ARGIA-ko Mikel Ugalde. Azaldu ez zirenez zer esan? Gure ustetan —inor gutietsi gabe— sobera genituen kazetaritzari buruzko mahai biribil hartan JAKIN, KARMEL eta EGAN aldizkariak. Lehenik JAKIN ez delako dagoeneko aldizkari peto bat, eta gainontzeko biak aldizkari tankeran agertzen bazaizkigu ere, ez dutelako funtsean kazetaritzazko senarik —gaia, gaurkotasuna, albistaritza etab—. Barkagarri edo aski ulerterraz, bestalde, iruiñarrak ez etortzea, joan-etorrizko arrazoiak direla eta.

Honela hasi zen ba zorioneko mahai biribil «ponpoxo» hura, bi aldizkarietako arduradunekin bakarrik. Batek baino gehiagok pentsa ahal izanen zuen —guk bezala—, harako mintzaldia lur jota hasten zela, eta onenean ere gainbera zetorrela. Ez zuen nonbait inork kontatzen mahai zuzendaritzarekin, hau da, Imanol Laspiurrekin, ohi duen trebetasun, saltsa eta jabetasunarekin, ustegabeko iharduna moldatu bait zigun. Bati eta besteri galdetuz, galdera bakotiza egin ahala entzuleei ere aukera emanez, azkenerako utzi gabe, eta gioiaz kanpo legokeen hainbat galdera zorrotz azalduz, beste inork ez zukeena eginen egin zuen maisuki Imanolek. Eta hau ez da gure zurikeria hutsa, aho batez hainbatek esan zigun iritzia baizik, bai elgoibartar entzuleok, bai eta Mikel Ugaldek berak biharamunean ere.

Honelatsu ekin zion Imanolek errebotez leporatu zitzaioten zereginari. Sei ziren egitarauan barrena agertzen ziren puntuok: 1.—Aldizkarien jomuga. 2.—Zein gaitzuk nagusienak, premiazkoenak. 3.—Kulturagintza. Irakurle heziketa. 4.—Aldizkari-irakurleren arteko harremanak. 5.—Hizkuntza kazetaritzan. 6.—Euskaltzaindiak onarturiko idaz-arauek kazetaritzagintzan erakar ditzaketen eragozpenak eta oztopoak.

Ez ditugu, noski, aipatu guztiak hemen azalduko, ez eta baten zein besteren esanak zehatz mehatz bereziko. Batetatik, zenbait galderen erantzunak —4 eta 5garrenak esate baterako— lehen hiruretan bide batez aipatu bait ziren, hala beharrez eta hariari etorri ahala atxikiz. Bestetatik ez zen han aldizkari bat edo beste aztertzen zena, kazetaritza bera soil soilik baizik, euskal kazetaritza alegia, guztion premia eta denon laguntzaren beharretan dugun euskal kazetaritza koskorra, hain zuzen.

Edozein modutan ere, zenbait gauzatan mahaikoak bat etorri arren ez denetan, noski, ezin ba iritzi berdinak izan, hamabosteroko edo astekari izatearen arauera egoki eta bidezko den bezalaxe. Honela, Yosu Torreren ustetan aldizkari baten lehen zeregina albistaritza —informatzea— da, behar bada hamabosteroko batek eman ahal izanen dituen berrien zain egoterik ez badugu ere. Honetaz, beharrezko dugu berrien azterketa eta aipamena, aurrez ezagutzen ditugun berriez zenbait burutapen eskainiz. Horrez gainera, aldizkaria egiaren eta herriaren zerbitzuan egon behar omen du, euskal irakurlego xehea kontutan hartuz gainera, irakurle horri irakatsiz eta bera hezituz. Bestalde, gaur egun, alfabetatze ikasaldien ariketak eta irakurgaiak eskaintzea egin beharrezko arazoa bide da.

Mikel Ugalde, berriz, esandako zenbait baieztatuz, herrietako berrien garrantziaz mintzatu zitzaigun, jende askok eta askok nork bere herriko berrietatik ekiten bait dio aldizkaria irakurtzeari. ZERUKO ARGIA erabat arduratu omen da zuzendaritza eta irakurleen arteko harremanak ugaltzen eta bizkortzen, jendeak, bataz beste, zer irakurtzen duen gustoren eta zer ez duen irakurtzen jakin ahal izateko. Euskaldungoaren berri ematea ere, hona hemen astekari baten nahita ezko eginkizuna. Halaber, kronikak moldatzea, hau da, Euskal Herrian ezezik, munduan barrena gertatu ohi diren berriak aztertzea, eraz eta moldez, euskal irakurleari interesgarri eta ulergari dakion eran azalduz.

Kritika aipatu zen gero. Kritika eta kritikakeria berezi beharra. Zenbait idazleren izenak entzuleen ahotan aipatu ziren. Kritikaren zentzua, jakinduria eta «ekilibrioa» aipatu zen. Kritikakeriak zenbait gutitan ondorio onuragarririk erakar badezake ere, ezin daitekeela inolaz ere aldez aurretik ontzat eman. Egiazko kritika eza ere azaldu zen, bai eta kritikaren balio edo ondorio urria ere, guztiok hain ezagunak gara ere, kritikak dioena irakurri aurretik, kritika bera idatzi duen egilearen izena irakurtzen bait da aurrenik, eta gehienetan izenaren arauera onetsi edo ez. Azkenik, aldizkariek erredaziozko zuzentzaile duten bezalaxe, zentzu eta mami zuzentzaile ere derrigorrezko behar luketela izan.

Hizkuntza —euskara— tresna bezala azaldu zen, kazetaritzako tresna, nola hala gainontzeko arazo guztietan euskaldunon tresna adiarazbide izan behar duen —edo lukeen— bezalaxe. Euskara euskaragatik ez. Ez eta kazetaritza bera euskararako ere, euskara euskal kazetaritzaren tresna bezala baizik. Euskararekiko artikulu gehiegia ere salatu zen.

Euskaltzaindiak onarturiko arauez, azkenik, ANAITASUNA aspaldi definitu zela honetaz esan zigun Yosu Torrek, aldizkari csoari halako itxura bateratsu bat emanez. ZERUKO ARGIA-k bestalde, ez du hauzi honetan erabaki zehatzik hartu, baina, hori bai, zuzendaritza mailan Euskaltzaindiaren esanari jaramon eginez eta gutienik Arantzazuko arauei jarraituz. Horrez gainera, Ugaldek zioenez, zuzendaritzak ondo ikusten omen du herrietako berri emaileek nork bere euskara erabiltzea. Erantzun ere erantzun zitzaion, Arantzazuko arauek ez dutela inondik ere euskalkien muina eta sena galerazten.

Azkenik, atzekaldean zen giputz peto peto batek —Euskaltzaindiaren jokaera erabat onartuz gero— herri xehearen jakintza eza gogorarazi zigun zenbait hitz goxoz, bai eta muturkeria eta alferriko irainak ahalik eta azkarren bazter ditzagula eskatu ere, arazo hau dela eta, hainbat euskaldun mindurik bait dago, edo amaika urtetan modu batez idatzi izan .duelako, edo orain aldatzea zail zaiolako, edo, agian, oker nahiz zuzen, gauzak nahi bezain garbi ikusten ez dituelako. Guztion onetan inoren iritziak errespetatzen ikas dezagula esanez, bestelako gauza aipagarririk gabe eman zitzaion amaiera borondate onenarekin elgoibartarrek moldatu zuten kazetaritzari buruzko mahai biribil honi.

Honelatsu ba bukatu zen. Esan dugunez hasieran, jendea ugari, arreta biziz. Mahaikoak bestalde, aukeran, daitekeen modurik onenean. Benetan uste dugu arras positibo izan zela, ondoren etor daitezkeen mintzaldien oinarri interesgarri. Bedi euskal kazetaritzaren onetan. Beharrik ere badugu!

EUSKALTZAINDIAREN BILERA

Biharamunean, hilaren 28an. beraz, Euskaltzaindiak bere hileroko bilera ospatu zuen Elgoibarren, Pedro Migel Urruzuno euskaltzain laguntzaile zenaren omenez.

Antton Aranburu, «Hamalau zango» irakurtzen.

Irakasle agiriak ematen. Aita Villasante eta Juan San Martin. Eskuin aldean, Aita Zabala eta Jose Luis Lizundia.

(c) Ministerio de Cultura 2005

Hamar terdietan, Herri Meza, bertako parroko den Carlos Agirre, Aita Villasante eta Aita P. Altuna elkarrekin zirelarik. Sermoi aldian, Parroko Jaunak P.M. Urruzuno apaiz eta euskaltzale izan zen aldetik goraldu zuen, herri xehearen artean kultura eta kristau arazoz egin zuen hainbat lan oroitaraziz.

Ondoren, Udaletxeko Gela Nagusian, Euskaltzaindia bildu zen hamaika terdietan, bere hileroko bilera itxian. Han ziren —Aita Villasante Euskaltzainburuaren zuzendaritzapean— Jean Haritsxelhar, Juan San Martin, Julene Azpeitia, Pierre Lafitte, Antonio Arrue, Aita Zabala, Ambrosio Zatarain, Yosu Oregi, Patxi Altuna, Alfontso Irigoyen, Xalbador Garmendia, Jose Luis Lizundia, Xabier Kintana eta Patxi Uribarren.

Euskaltzaindiak bere arazoak aztertzen zituen artean, Udaletxeko arkupetan moldatua zen Euskal Liburu eta Diskuren azoka ikus ahal izan genduen, bai eta Urrruzunoren omenetan AUSPOA Liburutegiak argitara eman berri duen liburuxka gaingiroki irakurri ere. Sasi-letrau baten ziria eta abar. *Deritza liburu berri honi, eta Urruzunoren ipuinez osaturiko bostgarrena dugu, azken lauak AUSPOAK berak argitara emanak.*

Hamabi terdiak jota ekin zitzaion bilera irekiari, lehen aipaturiko euskaltzainez gainera, Elgoibarko Alkate Jauna den Anjel Ajubita eta Luis Mari Ulazia arkitektoa ere mahai buruan zirelarik. Gela Nagusia, bestalde, gainezka; jende asko eta asko zutinik, ez bait zen guztiontzan eserlekurik. Gure ondoan zegoen Elgoibarko agure batek zioenez: «Sekula ez da honenbeste jende batu hemen».

Nolabait hasiera emateko, Juan San Martin idazkariak bileraren programaren berri eman zigun, hots: 1.—Euskaltzainburuaren agurra. 2.—Irakasle tituluak ematea. 3.—Urruzunoren omenez hiru hitzaldi labur. 4.—Urruzuno Ipuin Sariketaren irabazlea jakinarazi.

Aita Villasantek, denok agurtu ondoren, harako bileraren helburu garrantzitsuenak aipatu zizkigun, hau da, euskara irakasle berriei Euskaltzaindiaren titulua batetatik, eta Urruzunoren omenaldia bestetatik. Hontaz eta hartaz zenbait burutapen eskaini zigun, funtsean, maisutzak berekin dakarren jakintza eta P.M. Urruzunoren herrikoitasuna ez dagoela bata besteagandik zer berezi, gure euskara lantzeak eta jakin nahiak ez bait dute besterik gabe jatortasuna galerazten.

Ondoren, Juan San Martin eta Jose Luis Lizundiaren laguntzarekin, 113 irakasle berriri banan banan eman zizkion irakasle diploma eta karneta. Kontutan badugu 113 hoitatik 13ri etsaminarik gabe —hau da «curriculum vitae» delako batez— irakasle titulua eman zaiola, eta Bilbao, Donostia eta Eibarren moldatu ziren etsaminetan 149 presentatu zela, erraz asko atera dezakegu % 68k aprobatu duela Euskaltzaindiaren «D» mailako etsamina.

Irakasle tituluak banatu ondoren, Antonio Arruek ekin zion lehen hitzaldi laburrari Urruzunoren haroaz. *Arrue jaun euskaltzainak Urruzunok ezagutu ahal izan zuen Euskal Herria azaldu zigun: Karlistadak ekarri zituen ondorio gaiztoak, Jose Manterolaren inguruan sortu zen euskal kultura giroa, euskal teatruaren eraberritzea Marzelino Soroarekin, garbizaleen eta herrizaleen arteko eztabaidak, 1918 urtean Euskaltzaindia sortzea, euskal aldizkari berriak,* Euskal-Erri, Euskalzale, Ibaizabal *—aipatu azken biak Azkuek sortuak—, eta abar. Amaitzeko, Urruzunoren ipuingintzaz mintzo zitzaigun, haren umore paregabea eta hizketa herrikoia erabat txalotuz.*

Aita Zabalari, berriz, Urruzuno idazle *delako gaia aztertzea zegokion. Honela jakin ahal izan genduen Urruzunok ez zuela bere libururik argitaraturik ikus ahal izan, lehen liburua bera hil eta zazpi urteren buruan argitara eman bait zen (Ipuiak. Iruña, 1930). Hala ere, 1886 urtean* Urzale batek *izenpeturik «Euskal-Erria» aldizkarian bere lehen ipuina agertu zuenetik, 1923 urtean «Argia»n azkena argitara eman zuen arte, gutienik 320 ipuin inguru asmatu omen zituen Urruzunok 37 urtetan. Baina, Aita Zabalaren iritziz, ez dira hoik Urruzunok egindako ipuin guztiak, beste amaikatxo omen da jadanik galdua, eta beste zenbait, agian, hor nonbait ezkutuan.*

Azkenik, Julene Azpeitia mintzatu zen. Behar bada, eta programazioari jarraituz, Urruzunoren iloba den J.M. Etxaniz zen hitzegiteko. Ez zuen, ordea, ahal izan nonbait, eta aukeran bete zigun Julene Azpeitia euskaltzainak haren hutsunea, Urruzuno pertsonalki ezagutu zutenetariko bat bait dugu Julene. Bere aitaren eta Urruzunoren arteko harremanak aipatu zizkigun poliki asko, bai eta bere aitari entzunik zer nolako gizona zen Urruzuno ere. Zenbateraino zen bere aita zordun, nola irakatsi zion Mendaroko apaizak bere aitari irakurtzen, eta gero hainbatetan lagundu ere. Urruzunorekiko aitaren zorra ordaindu gurarik etorri zen Julene Azpeitia Elgoibarrera. Bai ordaindu ere, ezer ordaintzekorik bazen, behintzat!

Hitzaldien ondoren, Urruzuno Ipuin Sariketaren irabazlea jakinarazi zen. Euskaltzaindiak propio izendaturiko batzordea bilduz gero, «Urbi» izenpean aurkeztua zen ipuinari lehen saria eta bakarra ematea erabaki zen. «Urbi» delakoa nor ote zen eta... Antton Aranburu, Elgoibar bertako ikastolako irakasle eta Urruunoren omenez eratu diren saioen eratzaileetariko bat, hain zuzen. Bai aukeran ere eratu Antton! Gainera, gauza xelebre bezala diogun, erabakia jakinarazi aurretik mahaikoek «Urbi» nor zen jakin nahi izan zutela, elgoibartarra bazen edo, bileran ager zedin saria ematerakoan. Eta, hain zuzen, Antton eratzaile zenez, berberari galdetu zioten «Urbi» nor ote zen. Hara ba non jakin zuen Anttonek beste inork baino lehenago!

Azkenik, halakoren batetan, amaitzeko ordua iritxi zen ere —bai eta gurea ere, irakurlea asper asper egina bait da dagoeneko—, eta Haritxelhar jaunaren hitz neurtu, goxo eta hautatuekin amaiera eman zitzaion hirurak aldean harako bilerari, baina ez, ordea, iharduna eta berriketari, bazkaritan jarraitu bait zuen jarraitu beharrezkoa.

Ez dakigu literaturagintzan... baina jan edanean behintzat ez zaigu euskaldunoi umorerik sekula falta izan, ez horixe! Behar bada Arrue jaunak molda zezaigukeen honetaz txosten jangarriren bat. Baina, gaurkoz, ase da irakurlea. Hurren baten, agian. Agur terdi.

Idazle: Luis A. Aranberri.
Argazkari: Azkue «zoterokua».

kultura gaiak

JON MIRANDE HIL ZAIGU!

Urtarrillak 25: Frantziatik eskutitz bat heldu zait, beste karta sail baten artean. Lanez leporaiño nago eta biharamonean txango atera beharra dut zenbait hiritara gure eguneroko ogia irabazteko. Beraz, lanari dagozkion karta-estalkiak ireki ditut (osteguna zen) eta gaiñerakoak ostiral arratserako uzten. Ez nekien ondotxo Frantziako eskutitz hartan zetorkidan albiste tristea. Jakin izan banu, ez nuke edukiko noski egun t erdi ireki gabe.

Eskutitza Txomin Peillen euskaltzale sutsuak egiten zidan, munduan izan dudan adiskide onenetakoaren hil-berria emanaz: «Badut berri hits bat zueri esateko: Jon Mirande Aiphasorho gure aspaldiko adiskide minaren bihotz ona ta buru kezkatiak gelditu dira. Abenduaren 28 an hil da, sortu zen hirian, Parisen».

Bihotza erdibiturik gelditu zitzaidan. Izan ere, nork espero zezakean holakorik? Berrogeitazazpi urte oraindik beteberriak. Egia esan, osasunez erdi-ipurdi zebilien medikutan eta kliniketan, baiñan bere gaitza «zaiñetakoa» zen, berak esan ohi zuen bezala, nerbiotakoa, alegia. Ezin lo egiñak ematen zizkion lanak eta bere burua tratamentu batean jartzeko, bizpahiru aldiz kliniketan bolarak egiña zen.

Literatura alorrean nork etzuen ezagutzen? Olerkari, ipuilari eta saiolari bezala gaillendu zitzaigun. Horra hor «Gernika», «Euzko Gogoa», «Elgar», «Egan» eta «Igela», bere luma trebe eta iaioaren aitortzaille. Frantses eta ingles literaturatik ere, lan eder franko euskeraz jantzirik eman zizkigun. Ipuin luze edo eleberi txipi tankeran, «Haur besoetakoa» deritzan poesidun kontakizuna utzi digu. Eta ez dezagun ahantz, ene lankide bezala, Etxahunen bertsoetan egin zuen lan bikaiña Zuberoako mintzaira aztarrikatuz.

Estudiatzeko griña izugarria zuen. Goizeko seiretan jaikitzen zen, lanera joan baiño lehen estudiatu eta irakurri ahal izateko eta estudiotan bere joerarik handiena hizkuntzetarako zuen. Arrotzhizkuntzatan, frantsesaz gaiñera bazekizkien inglesa, galesa, irlandesa, bretaiñera, alemana, gaztelera... eta gehiago edo gutiago zenbait hizkuntza ekialdeko. Finesa estudiatzen aritu zela ere badakit. Euskaraz berriz, euskalki guziak menderatzen zituen. Gogoratzen naiz bolara luze batean Peillen bere adiskidearekin bizkaieraz egiten zuela, euskalki hontan trebetzarren.

Jon Mirande eta Aiphasorho Parisen jaio zen 1925eko Urriaren 10ean. Gurasoak Zuberoatarrak zituen eta txipitan euskaraz egiten zioten. Saan Martinek dionez Eskubidetza eta Linguistika estudiatu zituen Parisko Ikastetxe-Nagusian eta gure Euskaltzaindikoa zen. Ministeriotako bulego batean aritzen zen lanean administratibo bezala, baiñan lan hau etzitzaion batere gogoko. Beretzat sufrikario bat zen, berak sarritan esan zidanez. Hango lan monotonua higuingarri zitzaion eta lankideak sufriarazten zioten. Baiñan guzti hau berak aditzera emanen digu zoragarriro «Paris-Beuret» deitu olerkibikaiñean:

Paris'ko kale batean
Etxe zikiñen artean (1)
Bat dago zikiñagoa,
Illuntzen baidit gogoa
Aren aipatzeak berak,
An bertan dut lan egiten
Axotez beztuz paperak.
Seiak jo arte ezin erten
Aspertzen naiz, lor betean,
Büro zikintsu batean.

Nire lankide bikañak
Ditut adixkide miñak;
Goizero agurtzen naute
...Ixilik, bainaute maite
...Nola debruak Jainkoa.
Ari dira, bele antzo
—Koa, koa, koa, koa—
Besten gatik gaizki mintzo:
Bizkor dituzte mingañak
Nere lankide bikañak.

Guzti honekin ohartuko da irakurlea, Jon Mirande, ene antzo, inadaptatu bat zela. Ni bezala, etzen munduko hontarako jaio.

Askok diote fedea arras galdurik zuela. Nik ez nuke hainbeste esango. Gurera urtero edo ia urtero etortzen zen, eskuarki Eguarri inguruan eta otorduetan errezatzen zen Aitagureari apalki erantzuten zion eta gurekin beñepein, bai eliz-gizonez eta bai Eliz-Ama-Doneaz begirunez mintzatzen zen, nahiz-ta bidebatez euren dotriñen aurka jardun. Kristauen etsai baiño gehiago, judu, mairu eta beltzena zen. Egia esan behar da, arraza hauek gutxiesten zituela eta Germaniarrena miresten; halaber bere buruari fascista zerizkion eta Frantziako politikaren baitan legitimista bezala agertzen zen. Bestalde, Frantziako ezkertiarren kontra zegoen, baitipat hauek zentralista amorratuak direlako. Bere ideiak agertuz «Anaitasuna»ri egindako eskutitzean honela zion: «Je reçois depuis quelques mois «Anaitasuna», revue à laquelle je ne me suis jamais abonné et que je jette sans la lire, étant fasciste (bien que basque) et détestant le christianisme, ou du moins la démocratie dite chrétienne, en fait judaïque». Beraz, esan dezakegu, kristautasuna, arbuiatzen baldin bazuen, beronen Israeldar jatorriagatik zela bereiziki.

Euskaldungoari buruz, badirudi azken urte hauetan gogaitua eta etsia zegoela eta honetxegatik euskal-lan-sorotik atzeratua, baiñan hala ere euskal-kezka etzitzaion itzali bere baitan. Norbaitek gogora-eraziko dizkigu noski «Anaitasuna»ri egindako lerruok: «Et pour ma part l'euskara llue je continue de practiquer avec ma famille souletine, m'est devenu étranger, commo langue politique et de culture».

Lerruok ene ustez etsialdi batean idatziak dira, zeren geroztik gurean egon baitzen eta euskal-liburuz zamaturik joan zen Parisera. Areago, erosi gura zuen liburuen artean, Leizarragaren «Euskal protestantismoa zer zen» falta zitzaion dendariari eta beste liburu-dendetan ere arkitu ez genduelako, arren eta arren igortzeko korreuz eskatu zidan eta horrelaxe bidali nion. Euskal-kulturaz eta euskaldungoaz etsi duenak eztu horrelako kezkarik eta egarririk norbere baitan. Eskutitz famatuaren agur-hitzetan ere badago euskaldungorik, Zuberoatar den aldetik «Messieurs et chers compatriotes» deitzen dielarik beren senide bizkaitarrei.

Iñor eztago libre mundu triste honetan horrelako etsialdi eta beltzaldietatik, batez ere gogoan edukirik, ni bezala, tristuraren mendeko haur bat zela, pesimismoari zeharo emana. Eta barrua goibel zuenak kanpoa goibel desiratzen zuen. Etzuen eguzkiaren argitasuna maite. Aitzitik, Barojak bezala egualdi lanbrotsu eta euritsuak zituen gogoko. Beharbada honetxegatik bere bakantzak urteburuan, negumiñean hartzen zituen, Abenduaren 15etik Urtarrillaren 15era. Sorhuetatik, bere osabaren Xaho baserritik gurera etorri ohi zen bizpahiru egun Donostian pasatzera eta beti egun bat txango joaten giñan gure Euskalerri maitean zear. Eskuarki egualdi onak izaten genituen, eta behin, gaztetan, Izarraitzko tontorreraiño igo zen, Martxelo Esnal eta nerekin. Hiru aldiz, ordea, egualdi lanbrotsu eta euritsuak tokatu zitzaizkigun, Hazparnen, Beizaman eta Aralarko San Migelen. Ni penetan egon ohi nintzen egualdi on bat ezin eskeiñi hainbeste maite genduen arrotzari, baiñan berak honela erantzun ohi zidan: «Ez kezkatu hortaz, gizona, egualdiok txit atsegin zaizkit, nahiz ez deus ikusi, iduri baitzait lamiñen, iratxoen eta Maitagarrien mundu zoramengarri horretan murgildurik nabillela».

Horrelaxe zen gure Jon Mirande: on puska bat, apala, bihozpera eta bihotzandi, beti lagun hurkoari mesedeak egiteko prest, zearo desinteresatua, hitzetan lander eta egiñetan eder, beti on egin zale iñorengandik ezer espero gabe. Etzen kristau izanen, beharbada, baiñan zenbat kristau izeneko haren aintzinean lotsagorritu beharra daukatenak! Jainkoak dezala bere atsedenean, mundu hontan hainbeste sufritu duen gure Jon Miranderen arima.

YON ETXAIDE

(1) «Euzko-Gogoa»n (handik hartu baitugu), hutsegitez noski: «arean».

JON MIRANDE HIL DA

Beste batzuei, hil zaie Jon Mirande. Bere adiskide min izan zen Txomin Peillenek honela zidan heriotzaren berri ematean: "...Euskal Herriak ez zuen haren ideien eta haren gorputzaren beharrik". Sarako Etxeberriren lanek Lapurdiko Biltzarrean ukan zuten harrera ona ukan dute Miranderen izkribuek herriari bide zuzena erakusteko sortu ziren, bideak hestutzen jo ta ke diharduten beste zenbait taldetxoren artean. "...gainera, jarraitzen du Txominek, haren poema-bildumaren ez publikatzeak, oraingo euskaldunen joerez etsitua zegoen".

Etsitua. Parisen sortu eta etsitua, Parisen hil da; ia iñor konturatu gabe, eta Inuzente egunean! Orain hilabete batzu, ordurako gaixorik, psikiatrak galdetu zionean ea zer izan nahi zuen bizitzan, honela erantzun omen zion Jonek: "Ni? idazle".

Harriturik nago nola ez dugun Miranderen heriotzaren berri lehenago jakin.

Bere guraso Xuberotarrek, betiko Parisera desherriatuak, ez bide zioten laguntza haundirik eman euskara ikasteko. Aitzitik, herri berrikoa egin nahi zuten osoki Jon gaztea. Halere Mirande, bakantzetan bere osaba Xuberotarraren etxera etortzen zelarik, ohartu zen nori eta zeri gorde behar zion atxikimendua. Hemengo euskalki guztiak ikasi zituen eta sakondu. Idazle fina, nik, neuk, ezagutzen dudan finenetakoa eta bakana. Gaubezala.

za hauek deus guti balio dutelako gure herrian, jaso zituen Mirandek orratzaren alde guztietatik mila goraintzi bereizi. Edonork edonun dituen afizioak ez bide ditu, nunbait, euskaldun batek Euskal-Herrian eduki.

Ohitura dugunez, Miranderi egingo dizkiogu mila omenaldi eta gorazarre, aintza eta ospe; eta ohitura dugunez, asto hilari emango diogu oloa ipurdira.

Luza gabe, has nadin ni, orain urtebete inguru Mirande eta bestez ondu nuen poematxo honekin.

ai! Galileo
Galileo Galilei,
ez hintzen lehena
ez eta ere azkena, Jon Mirande.
Etxahun Barkoxeko
Xaho Atharratzeko
Mirande Sohütako...
nungoak ote
hire herrian ihizatzen hauten
belabeltz eta gorriz tindatutako [karkar
Ilhun Aroetatik ihes egindako
inkisitore frustratuak?

Kafka epaileen aitzinean,
beleak eta karkarrak mahaian [kezkati
ea Mirandek kaka eserita egiten [duenez,
ea lau oinean ibiltzen ote den
Mirande olerkaria.
olerkari minbera
zilhar finaren kristala, izarren irria
Zuberotar zalutasunari dagokion

sasi eta laharrek mendeko zituzten [soroak
erraietaraino ditu ireki,
izkutuari
bihotz xahua hostu
lurrari
eta lurruntsu dio
bere jendeari eskaini.

hori guztiarengatik, Jon
zeru eta ifernuaren
iragana eta etorkizunaren giltzariak
sua irazekirik ditek gordetzen...
erretzaileak zai, beren ofizioan [tinko
bihotzak sutaratzeko
taupadaka dirauteino.

nungoak ote?
ez ote dakik nungoak diren?

hire belarriak ez badituzte oraindik [gortu
hire begiak lausotu,
jakin ezak
hire herrian badirela oraino
bele eta karkar krakrateko guztien [gaindi
igelaren kantu ozenak
xaramelatzen dit uzten jendeak.

igela isiltzen bada
nork aintziretan
maitasun gose den ilargiari kanta- [tuko dio?
aintziretan eta gauaren isilean.

j.a. arze "HARZABAL"

(c) Ministerio de Cultura 2005

aizarna

ZORIONAK

"Etxeberri"ko Pilartxo eta "Ezenarro"k Joxepa, orra bi erritar ezkondu zaizkigula oraindik-orain. Eta biak Ondarrabira. Mendi-aldetik itsas-ertzera: elkartasun egokia noski. Euskaldunek aspaldienetik elkartu eta uztartu izan dituzten bizikerak: baserria eta itsasoa.

Zorionak bikote bieri. Bai, itsas-aize gazixkak iraungo duen bitartean, iraun dezatela zoriontsu.

"Aranburu"ko Maria Jesus eta Sebastiani ere zorionak ugari bezain oparo. Zergatik? Beren maitasunaren lenen-emaitza osasuntsu izan eta Bataio-urez bizi-berriturik dutelako. Aldi baterako ba-dute orain jostaillu polit eta maitagarria etxeko guztien alaigarri.

ERIOTZAK

Eizagirretar Iñaxio, "Lizasoeta"-ko aitona urtarrillaren 3'an il zan. Iztun atsegiña zan, lagunartekoa, langille purrukatua. Larogei urte ta ala ere ezin egon une batez geldirik, ezin etsi lanik egin gabe. Lanerako griña zuala esan bear. Su-egurra txikitzen ez ba zan, arto-aletzen; baiña beti ari eta ari. Gaztetatik asita gaiñera. Eta goiztarra? "I txori izan ba intza, ez intzan goizago esnatuko!" esaten zioten baso-mutil egur-lanean zebillenean.

Agirre'tar Julian, orra beste erritar bat gutxiago gure artean. Asko uste ez genduen utsunea! Nork sinistu oraindik ere, berebil gorrixkaren barruan gidari ikusiko ez dugunik! Serbitzari leiala eta zuzena benetan gure Julian. Azkenengo amar-amabi urte auetan, zenbat eraman-ekarri eta enkargu ez ote dizkigu egin Aizarnako edonori? "Enkargugille aparta" esango luke gure arteko edozeiñek. Izan ere, ain azkar eta juxtu egin oi zizkigun eskatutako mesedeak. Erriko serbitzari izatea baldin ba zan ere bere bizibidea, bera ortatik aberastu dan baiño askoz geiago aberastu gaitu guztiok ari zor dizkiogun mesede-serbitzuz.

Naigabean ez-ezik otoitzetan ere laguntzen diegu bien sendikoeri. Eta bi-biak arki daitezela betiko atseden zoriontsuan.

Ertziñapek

azpeitia

BASERRITARRENTZAT IKASTALDIA

Benetan poztu gaitu izenpuru honekin, Azpeitiko bailaran eratua izan den ikastaldi sakon honek. Ez bait da badaezpadako ikastaro txepel bat, hots erakunde ofizialek maiz, beren antzutasuna estaltzeko eratu izan ohi dituzten gisakoa. Ez, eta beste zenbait elkartek, beren hiltamutik irtetearren antolatzen dituzten ihardunaldi funts gabeko bat ere. Gisa honetako ikastaldiak, azkenaldi honetan maiz aski hedatzen ari zaizkigu Gipuzkoan, propaganda dute erakarpen bakartiar; eta bazkideen «kultur kezkalarria» absolbitzea, xede nagusi.

Baserritarren ikastaldi hau Lurgintzak eraturikakoa da, bere laguntza eta babesez ahalmendurik. Ikastaro osoa arras baserriari eta nekazalgoari loturik dago. Egitarauan ikus ahal daitekeenez, egungo baserrien problema gordinenak zuztar zuztarretik zuritzeko asmoa bide dute.

Balendin Zamora adiskideak esan digunez ikastaldi hau bigarren mailakoa da. Bertaratzen diren ikasleak, zenbakiz ez hain ugariak, baserri egoera erabat irauli nahirik dabiltzan nekazari arduratsuak omen dira. Egungo egunean jasaten dugun giro bitxi itogarri honetan, ez da harritzeko, baserritar kontzientziatuen kopurua urri arkitzea. Berauek baino gataskalariago agertzen diren giza-mailan egoera ere; aski gora mintzo bait da gertakizun berbera salatuaz. Langileriaren deliberotan muturra ñimiñoki sarturik duenak aisa ulertuko gaitu.

Ikastaldiaren gaiari lotuaz xeha ditzagun, gai, irakasle, toki, ordu eta egunak.

GAIAK eta IRAKUSLEAK

1) Forraje asko eta ona sortzeko sistima. Belardi berriak egitea, zaitzea eta ongarritzea. Honen garrantzia ganaduaren alimentazioan. Irakasle Jaime Zubia (hiru ikasgai).

2) Behi-gorputz ezaguketa (fisiologia). Irakasle Enrike Zurutuza (hiru ikasgai).

3) Ganaduaren alimentazioa. Irakasle. E. Zurutuza (bi ikasgai).

4) Pinu eta esnearen salmenta. Irakasle. Joxe Larrea (ikasgai bat).

5) Egur neurketa, botaketa, pixtak etabar. Irakasle. Joxe M. Ugalde (ikasgai bat).

6) Kooperatiben garrantzia eta zerregina nekazaritzan. Irakasle. Andoni Lekuona (ikasgai bat).

7) Euskal Herriko nekazaritzaren egoera eta geroko etorkizuna. Irakasle. Imanol Urreztarazu (ikasgai bat).

8) Europako Merkatu Batua eta Euskal Herriko nekazaritza. Irakusle. Joxe M. Muxika (ikasgai bat).

9) Espainiako hirugarren Plan de Desarrolloa eta Euskal nekazaritza. Irakasle Joxe M. Muxika (ikasgai bat).

10) Nekazaritzarako Organismo Ofizialak, Gipuzkoan duten egoeraren berri ematea. Irakasle. Gipuzkoako Ministerioaren ordezkaria.

Ikastaldiko egunak

Urtarrilaren 16-23-27 eta 30ean.

Otsailaren 3-6-10-13-17-20-24 eta 27an.

Martxoaren 3-6 eta 10ean. Guztira hamabost egun.

Ordua

Ilunabarreko 8 t'erdia.

Lekua

Antxieta etxea.

Oharra: Nahi duten baserritar guztiek ateak zabalik dituzte ikastaldi honetan. Ezer ordaintzen ibili beharrik ez dute.

Lurgintza, urtean zehar baserritarren alde zerbait egiten ari da. Azkenaldiotan baserritarren seguridade soziala, haragi-esnearen salneurria, midiku arazoa, jubilatuen soldata etabarren azterketa egin ondotik, bailaraz bailara nekazaria informatuaz eta gidatuaz dabila.

Zamora jaunak beste egun batetako gaia eskaini digu problema interesgarriotaz. Bizkitartean, nekazalgoaren alorrean orain arte bezala joka dezala Elkarte herrikoi honek.

FILME BAT

Urtarrilaren 26an, Azpeitiko Zelaitxo zinetokian jokatu zen pelikula batetaz ari gatzaizkizue. Ezer askorik esateko ez badu ere; Azkoitia eta Azpeitiari zuzendutako filme bat delako, merezi du aipatzea bederen. Filme hau iazko udazkenean egindakoa da, eta beronen finantza, bertan nabaritzen zenez, lau empresak egin du. Hots Cooperativa Obrera de Mueble, Odriozola, biok Azpeitian, Talleres Picua, hau Azkoitian eta Afora, hau ere lantokiz Azkoitian finkatua baina administrazinoko kontseilaritza Madriden duena. Neokapitalismoaren propaganda ezagun honetan agertzen zenez, bi herriotako ugazabek ahalegin biziz ari dira teknika-aurreratua nor bere lantokian sartzen. Teknikaren iraultza, filme guztian zehar nagusiki agertzen zen, eta beronen zurrumiloan ugazabak burubelarri murgildurik. Izenpurua bera, «La cuenca de Urola», eta gainontzeko filmaren azalpena, ia dena erdara «orokarrez» egin dute, batipat teknikaren xehetasunak emateko orduan. Aspaldidanik, gure euskera «ziztrina» kulturteknika alorretik arbuiaturik da, zine honek ere, gertaera beraren frogabide ezin argitsuagoa eman digu. Dena den, larregi luzatzeke, gure iritzi apal bat agertuaz, amai dezagun filme honen azalpena.

Ongi derizkiogu lantokiak teknika aurreratuaz hornitzeari. Halabaina, berau «sozial» kutsuz arras gaintzuritu nahi dute; eta hau oso korapilotsua eta labaina da. Gisa honetako propaganda egiteko arras egokiagoa derizkiogu (Euskal Herrian ez dugunez gero) Espainiako telebistari.

HITZ GOGORRAK

«Triunfo», Espainiako astekariaren azken alean, 539 zenbakian, Olof Palme Sueziako lehen Ministroaren hitz gogor bezain gardenak irakurri ahal izan ditugu. Olof Palmek estaduko mandatari guztien doilorkeria salatuaz, bere abots ozena jaso zuen mundu aurrean, Ipar Vietmanian, yankitarrek obratu zuten bortxadura gaitzetsiaz. Ez gaude sarritan entzuten ohituak, Ministro bat hain trebe eta ausarki mintzatzen. Hanoi eta Gernikaren kondairak gauza bera eta berdina irakasten dutela, dino Palme jaunak. Bi herriotan gertatuak, arrazoibidearen itzalik gabeko, bortxa-zigorra agertzen omen dute. Justifikaziorik eta zentzurik ez duten erailkintza ezarri zaiote herrioiei. Olof Palme bera, jadanik onartu da bere hitzek eginen duten zauriaz, halare mundu guztiaren aurrean aldarrikatu du imperialismoaren bortxa eta Vietmaniaren trajedia.

Euskaldungoaren baitan azken urteotan sortu den izurritea eta pozoina ezabatzeko ez zaizkigu alferrikako, Olof Palmeren gogoetak! Leku ederrean gaude oraindik!

ANATSAN

azkoitia

GURE IKASTOLA

Denok dakigun bezala txanpon behar handia dute egun ikastolek, Azkoitikoak ere bai noski. Hau orrela izanik zorioneko diru hori eskuratzeko, bide bat baino gehiago urratuak dira, eta aurtengo urte honetan beste iturri berri bat eskeini die, zera alegia, urteko igande batean eliza nagusian eginen den eskaria osoki ikastolarentzako egitea. Ideia hau erretore jaunak proposatu omen zien ikastolako batzordekoei eta berehala batzordekoek onartu eta bai eguna izentatu ere. Urte berri eguna jarri dute eskaria egiteko eta aurten eman zaio hasera.

Adierazi beharra dago herriak zeharo ongi erantzun duela eta laguntza horrekin pixka bat bederen diru aldetik duen zama izugarri hori zerbait arintzen zaiola, ikastolari. Gureak diren gauzak jasotzeko eta aurrera ateratzeko prest gaudela nabaritzen dugu ingurumarian. Egun euskaldun guzion egiteko bat ikastolak aurrera ateratzea da, izan ere bete behar handia bai dute gure Herrian; saia gaitezen bada euskaldun bezala jokatuaz, gure ikastola aurrera ateratzen.

MODA BERRIA

Jantziena eta beste zenbait gauzarena ez ezik, omenaldien moda berria dugu orain Azkoitian. Lehenengo haseran pertsonarekikoak genituen, egun taldeenak, urrengo...

AUSKALO! eibartarrek dioten bezala diogu guk ere, ze ola dok ala? Azkoitian bat baino gehiago izan dira gure kulturaren eta herriaren alde lana egin dutenak, eta iñork omenaldi bat edo eta haien omenez zerbait taxutzea merezi badu haiek merezi dute. Ezkilen antzera, guk ere errepikatzen hasteko garaia dugu, eta denok dakigu errepikatzeko era asko dela.

GURASOEN ELKARTEA

Garai batetan sortu zen gure herrian «Gurasoen Elkarte» bat. Haseran berotasun handia izan zuen bainan egun bizi denik ere ez dugu sumatzen. Elkarte honek aurrera eraman dezazken ekintza franko bada hemen, adibidez ikastetxetako gora beherak, hildo horretan ez bait daude gauzak behar diren bezala, zenbait tokitan behintzat; eskolak aipatu ditugun bezala beste arlo batzuk ere badira. Elkarte honek berpiztu beharra duela derizkiogu, zeren esaera zahar batek dion bezala «geldik egon da ez da erbirik harrapatzen» eta inguruan gauzak aldatzea nahi badugu mugitu beharra dugu.

TXINPARTAK

pasai donibane

JOLAS-TOKI BERRIA

Direla egun batzuk Herriko Etxeak egindako jolastokia ikusten izan ginen. Izan ere, leku zoragarri bihurtu bai du herriko «labadero zaharraren» gailurra. Gu mutil kozkorrak ginela, sasi eta laharren artean jolastu izan ohi genduen toki berberetan herriko agintariek jolastoki bikaina jaso dute. Txirristadak, bizikletak, alkiak jarriak dituzte umeen zoramena eta gozamenarako. Bejondeizuela!

Dena dela, erregu bat nahi genieke egin Agintariei, alegia, goi aldean (elizaren parean) burni-sarea jarria duten bezela, beheko aldean ere beste horrenbeste egin behar lutekeela. Jarria dagoen baranda alturaz txikia gelditzen bai da, edozein ume errax igotzeko moduan eta jakina, karrikara erortzeko arrixku beldurgarrian.

BIZIMODUA GORUNTZ

Ardoa ere bi pezta igo omen da. Ezin bestean eta derriorrez goratu omen dutela, diote enpresarioek betiko leloari jarraituaz. Ilargia eskuratu nahi nonbait. Nik ez dut, behar bada gaztea naizelako edo, huelga bat sekulan ezagutu horrelako gauzak lortzeko; guk ordea...

ITXAS-MENDI

Datorren igandean (Otsailak 11), Lizarraga, S. Donato eta Huarte Arakil aldera abiatuko dira Itxas-Mendi Elkarteko mendizaleak. Norbaitek joan nahi badu, eman beza izena beroien Elkarte edo Soziedadean.

ONDARRABIAKO LASAILETARRAK

Lehengo batean, Ondarrabiako Lasailetarren kolejioan dabilan mutil koskor batekin mintzatu ginen. Kale bat arkitu nahiean genbiltzalarik, mutiko bati euskaraz galdetu genion ea non ote zegoen delako kalea. Horrela jakin genduen lasailetarren zenbait berri, hau da, egunero ordu erdi bat aritzen direla euskara ikasten ikastetxe hortako mutiko guziak. «Guziak?» genion guk; «bai guziak» erantzun zigun mutiko bizkorrak.

Ikasbide ederra, alajaina, Euskal-Herriko gainontzeko kolejioentzat!

IÑALURRETAK

mutriku

ETXE BIZITZAREN ZOZKETA

Mutriku zorion aldiko arkitzen dala, ezin uka. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak antolatzen dituen etxe bizitzaren zozketan, gure erria etxe bizitza oietako batekin saritua izan da, Belaustegi eta Olaizolatar Leonor neskatxa gaztea saridun izanik. Saritutako zenbakiaren bidez 750.000 pezetako etxe bizitza, non nai eros dezake, argibide guziak Aurrezki Kutxaren bizkar izanik; edo etxe bizitzaren balioa oso-osorik jaso dezake. Aurrezki Kutxa Probintzialari esker, lau urte barrenean bi etxe bizitza Mutrikuratu dira. Ezta auntzaren gaberdiko eztula!...

Zorionak etxe jabeari.

ITZALDIAK

Urtarrillaren 18 eta 25ean, JAUJA-ko jakintza sailleko gazteek, euskeraren osagarri bezela, bi izketaldi eratu zuten. AOZKO ELERTI EDO LITERATURA eta ELERTI IDATZIA gaitzat arturik. Itzaldi auek Lekuonatar Juan M.ª jaunak eman zituen. Euskerari buruz, gauza jakingarri asko azaldu zuen, batez ere bertsolaritzaz, olerkitzaz eta abesti zaarrari buruz. Badu ain zuzen Mutrikuk bere edestia kantu aldetik. Ongarri litzake, aspaldi batean aipatu bezala, bertso eta kantu zaar guztiak batu eta erriaren eskuetan jartzea, abesti oien bidez euskera indartu eta zabaltzeko.

Il berean, 29an, GIZA edo SEXOA mamitzat arturik, Ansolatar Benito Markiñako erretore jaunak itz egin zuen, eta gazteriak bai ondo erantzun ere Erabilli zen gaia arretaz entzun ondoren, jendea pozik atera zen.

BATAIOAK

Urtarrillaren 28an, Eleiz Nagusian bataioaren bidez kristau egin ziren aurtxoen izen-deiturak: Eizagirre Andonegi-tar Amaia; Andonegi Gonzalez-tar Enekoitz; Garagarza Eizagirre-tar Estella; Abal Romero-tar Miren Nekane; Agirregomezkorta Lekube-tar Borja eta Yurrita Orbegozo-tar Rakel. Zorionik beroenak aurtxoen guraso eta senide guztiei.

IL DIRANAK

Urtarrillaren 20an, il zan 82 urterekin, Aizpurua ta Etxabetar Maria Paz, LOYOLA etxekoa.

Urtarrillaren 24ean, 85 urte zituelarik, Agirre eta Aizpuruatar Franziska, andere on eta oso ezaguna.

Baitare Urtarrillaren 26an, il zan Zendoia eta Amutxastegitar Jose Miel, APATEGI baserriko aitona. Guztiak oso ezagunak eta guztiz maitatuak errian. Atsekabean laguntzen diegu beren seme-alabei eta aaide guziei.

EZKONTZA

Otsaillaren 16an, Andre Mari Jasokundearen Eliz Nagusian ezkonduko dira San Sebastan Barrenetxeatar Jose Iñasio eta Elezgarai Arrasatetar Felizia. Urte askotan bake ta zoriona izan ditzazuela opa dizuet.

ANDONEGI

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

JOSE ZINKUNEGI'REN

OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4 DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005

ataun

ZURRUMURRU ITSUSIAK

Arazo askoren aurrean ez da erreza izaten erabaki zuzenak ematea. Baina pausoak argi eta garbi emandakoan jendeak gauzak onartzen ditu. Orain agertzera noan zurrumurru au gogo onez ikusiko nuke ixildua, ots argitua.

Entzun dut Goierriko Mankomunidadeak erosi duala N. Garayalderen Centrala. Ez dakit egia dan ala gezurra. Ez dakit erostekotan diran ala... Dana dala, arriturik nago, bada, Zertarako behar du Goierriko Uren Mankomunidadeak, Central bat?

Itxura duanez, orrela diote Udaletxe inguruan, Centrala bera ez baizikan bere urak nahi ditu Mankomunidadeak. Baita ere entzun dut, Iberduerok bere argia ekartzea dijoanez, jauntxo batzuek pentsatu dutela Centrala indenizatzea, bera erosiaz milloi batzutan.

Gauzak orrela badira, ataundarrei esnatzeko garaia iritxi zaie, eta Udaletxeko jaunei ze esanik ez.

Ez du zentzurik Central zahar bat erosteak. Central orrek lehen ere ez ditu Ataungo argi beharrak osatu eta orain zertarako orrelako gauza bat? Bakarren batek esango du Centrala bere uragatik erosi dutela.

Baina au astakeria bat da. Urak ez dira Centralarenak. Ura ez da propietate pribatua. Ura, erriarena da. Ura ez dauka centralak saltzerik, ez baita berea. Centralak ar dezake ura funzionatzen duan bitartean, baina Centrala gelditzen dan unetik, ez du berea ura. Ura ez dago Centralari erosi beharrik.

Lurraren azpiko gauzak: ura, petroleo, e.a. ez dira behin ere lurraren propietarioarenak izaten, erriarenak baizik. Petroleo putzu bat arkitzen danean, propietarioari gaineko lurra indemnizatzen zaio ez azpian arkitutako gauza. Gainera ura jaiotzen dan lurra ez da Centraleko nagusiarena. Beraz zergatik Centraleko nagusiari ordaindu behar dizkiote milloiak? Orrenbeste urtetan, Ataunen eduki degun argiak merezi aldu saritzea?

Uste det Goierrin gauza garrantzitsuagoak ba ditugula dirua nun gastatzeko eta Mankomunidadeak ere badu aurreagokorik saritzeko. Ez zuan orrenbesteko eskuzabala izan, Ayaiturritako ura eramateko, makiña bat propietarioen lurrak altxa zituztenean.

Zurrumurru au egia baldin bada, jakin bezate Udaletxeko agintariek, ez dirala erriari laguntzen ari, J. J. baizik aberatsari oraindik aberatsago izan ditezen.

baztan

Urtea hasi orduko berriz ere bertze dei bat Arizkun-ko mutil-dantzariei eta oraikoan Leitza-ra. Herri hontan Urtarrilaren 21-an Iñauteriak ospatzen zituzten eta hortaz zenbait ikusgarri ere antolatu zituzten. Goizean pilota partida eta aizkora apostua. Arratsaldean Arizkundar dantzariak eta euskal kantariak: Iñaki, Goya eta Balentzia beren kitarrekin euskal kanta berrietan ari izanak direlarik. Frontoia euskaldun jendez beterik, denak gazteak eta umore ederrekoak. Arizkundarrek beti bezala Maurizio eta Felix soiñulariekin dantza mota aunitz erakutsi zituzten, hoien artean: Muxikoak, Tellerin, Biligarroarena, Añarxume, Xerri-Begi, Sagar-Dantza eta Zortzikoa. Jendea kontent zagon eta txalo beroekin saritu zituzten baztandarrak. Gure mutil-dantzak daukan seriotasuna eta nortasuna berriz ere Euskalerriko plazetan agertu dugu.

Orai badugu beste ekiñaldi bat eta ez nola nahikoa. Datorren Martxoaren 22-an Donostia-ko Udal-Etxeko Sala haundian Patxi Arraras Nafarroako dantzarien Buruzagiak izketaldi bat egin beharra du. Solasaldi hau garrantzi haundikoa da eta den dena Baztango folkloreari buruz izango da. Hortarako Arizkun-go dantzariak deituak izan dira eta hor ariko dira Baztango dantzei merezi duten ohorea eman nahirik. Jendea bilduko da eta badakigu euskal dantzarien alorren lanean ari direnak eta gai hoketan aunitz dakitenak hor ikusiko ditugula. Datorren Martxoaren 22-an, arratseko zortzietan Donostia-ko Udal-Etxeko Sala handian.

M. IZETA

goizueta

Agindu nizuen bezela iñoizka iñoizka zer edo zer emengo berriak bialduko nizkizutela, bada gaur irakurle, oietan bateon bat baldin badago gure erria ezagutzen ez duanik, erakutsi nai diot zerbait, ea animatzen ote dan agertu bat egitera erria eta erritarrak ezagutzera.

Gu Naparroako azkeneko erria gara. Gipuzkoa aldera, Hernani lenengo erria. Naiz naparrak izan gipuzkoarren antz geiago dugu. Bizia geiago egiten dugu Donostiarekin Iruñakin baiño. Bada, bide erdia duguta. Hernanitik mugara (Fagoagara) amar kilometro eta andik Goizuetara amabost.

Lenengo ostatua Benta Berrin, Aranoko dermioan. Kilometro gutxira, aldapan bukaeran, Goiko kasetan, eskuintzen da karretera Aranora igotzeko. Goizuetarakoak, berriz, aurrera jarraitzen du beti beera jetxiz.

Merezi du gain onetan egonaldi bat egitea. Oso bista politak ikusten dira. Batez ere AÑARBEKO presa' aundiaren inguruko lanak. Badakizute presa orrek artu bear dituala Artikutzatik eta inguruko erreka guztitatik datozen urak, Donostia eta beste zazpi edo zortzi erri uraz osatzeko. Presa au Errenteri eta Goizuetan, bien mendi tartean egiten ari dira. Bein bukatzen danean zer ikusi ederrik izango du.

Bere familiarekin igandea etxetik kanpora igarotzea gustatzen zaionari ikustera joan dadilla esango nioke. Mendizaleak, berriz, badauzkate iru autobide edo gurdibide, onto edo kamamilla edo marrubi garaian pozik ibiltzeko. Artikutz aldera jotzen du bide batek. Besteak Itasemegi edo Loitzate aldera Mendi Mendaur aiekan. Irugarrenak, Mandoegi aldera; aurkituko dute bide ondoko errekan naiko amorrai eder.

Iñor askok uste duen baiño ederragoa da erri au. Nere aita zanak kontatu zidan: Donostiako ayuntamentuak erriko pestak aurreratzeko edo atzeratzeko mesedea eskatu zion Goizuetakoari. Abuztuko Amabirjiñetan izaten bait dira emen ere pestak eta ezin egin omen zitezkean Donostiako «Semana Grande»ko aste berean.

Bateon batek esango du, a zer alea bota duan auxe! Ez jauna. Badu bere arrazoi bidea. Ixtimazio aundia zuten garai artan emengo Nexkatx gazteak. Lagilleak, garbiak, leialak eta politak omen ziran. Donostian denak emengo neskak nai mirabetzarako. Alkaterengandik asi eta azkeneko konzejaleraiño emengo neskatxak zeuzkaten mirabe. Jakiña, bidezkoa zan bezela neska guztiak errira etorri nai izaten zuten pestak pasatzera. Orregatik eskatu zuan Donostiako Ayuntamentuak pestak aldatzeko. Bestela jende askok «Semana Grande» etxetik kanpora igaro bearko zualata.

Urrengoan beste xelebrekeriren bat

SEBEINO

legazpi

ODOL-EMALLEAK

Joan zan urtean Legazpiko odol-emalle Elkarte-Ordezkoan, gorabera auek izan ziran.

Urtearen asieran, bazkide odol-emalleak-136 genituen. Urte barruan bazkidetuak-71. Bukaeran, danera-207 odol-emalle. Diru laguntzako bazkideak 3 bakarrak. Abenduaren 24'an egin zan elkarte onen aldeko diru biltzea, 5.400 lauerleko. Urte barruan egin diran odol-ataratzeak-5 alditan danera-148 odola eman dutenak.

Pixkana bada ere, badijoa eskeintza onen garrantziaz arduratzen erria, bazkide berriak sortuaz. Arriskuak ugalduaz dijoakigun era-berean oartzen ari gerala dirudi, gutxiena uste degunean gerta gindezkela besteren odol-bearrean.

Gaur-egun sendagintzak aurrerapen izugarriak iritxi dituanez, lenago ezagutzen etziran senda-gai bereziak arkitu ditu, gaxotasun, eta batezere, ez-bearrez zauritzen direnak, senda-al izateko. Senda-gai auen artean, odol-berria garrantzitsuenetakoa degula ezin ukatu. Gaxotasun txaar baten bidez norbaiti odola alperrik-galdu bazaio, sendagilleak aukerako odol-berria aldatuko dio, ta gaixoa arriskutik aldendua izango da.

Lantegi, ta joan-etorrietan gertatzen diran ez-bearretan, zenbat odol-ixultze gaur-egun?... Baldintza oneko odolak, nai-ta naiezko eriotzetik, zauritu asko gaizkatzen dituela ziur gaude.

Gaixorik arkitzen geranean, bagoazkio itxu-mustruan sendalariarengana osagarri on baten bidez senda gaitezen. Eta senda-gai ori odol-berritzea balitz, eta barne-agintez odol-emallerik ez balegoke, zer?... Len egin oi-zan bezela, senideen bati aterata aldatu?... Orretarako astirik ez-balegoke; Zer egin?...

Odol-emate arazo au, sakon aztertu bearreko gaia degula, konturatuko zera, noski, irakurle.

Lagu-urkoaren-ganako esker ona (biar edo etzi guretako izan diteken ustean), erne dedilla gure barrenetan, eta atsegiñez eskeñi odola bartasun larri oiek betetzeko.

Norbait bearrean arkitzen danean, artzen duan odola ordaintzea, ez dauka sendategietara joan bearrik. Au gogoan artu. Naikoa da erriko Elkartera deitzea, ta berak emango du ordaiñezko odol ori. Elkarteak biotzez eskertzen du erriaren aldeko laguntza ori.

AN-ZAN

zarautz

ZARAUTZKO IKASTOLAREN ARAZOAK

Aspalditik nerabilkian nere barrenean ikastolari buruz astekari onetan zerbait idazteko googa. Gaur baiño leenago asia natzaizue baiña bereala poto egiten nuen. Ez nintzan gelditzen zer esanik ez nuelako, nola esan ez nekielako baizik, euskera mnderatzen ez dudalako, euskeraz idazten ez dakidalako. Etxean eta lagun artean beti euskeraz mintzatzen eta lau lerro bear bezela idazteko erraztasunik ez. Lotsagarria benetan!

Berriro asi naiz eta ez nuke nai lantxo au amaitu gabe uztrik. Ez bainaiz lasai egongo dauzkadan kezkak azaltzen ditudan arte.

Gaur, ikastola denak egoera larrian arkitzen dira eta, jakiña, besteen tartean Zarautzkoa. Erriak egoera onen berri jakitea garrantzi aundikoa izanik, gorabeerak aalik eta garbien adierazten saiatuko naiz.

Zarautzko ikastola 1965 urtean sortu zan, guraso talde baten lanari esker. Iru urteko aurrekin (Parbulario) asi zan eta, erriak egin zion arrera ikusirik, 1968 urtean gurasoen Batzar Nagusiak "enseñanza primaria" deitzen zitzaion maillako irakaskintzan sartzea erabaki zuan. Erabaki onek arazo berriak sortu zituan: irakaslen tituluak, toki bereziak eta abar, baiña arazorik aundiena legearekikoa zan. Madrilleko baimena bear baitzan.

Orretarako bear ziran paperak bete eta Gipuzkoako Delegazio eta Gobernutik pasa ondoren iritxi ziran Madrillera baiña an uko egin zioten eskabideari. Batzordeak ez zuan etsi eta berriz ere, orduko legean oiñarrituta, paperak bete zituzten, baiña alperrik (Gobernadorearen esku artean gelditzen baitziran). Alaz guztiz ere, ikastolak aurrera jarraitu du eta gero eta aur geiagorekin gaiñera.

Gaur egun txikietako maillan 274 aur dabiltza eta oiñarri eziketakoan (Educación General Básica) 377; danera 651 neska mutil. Mailla onetan Zarautzko beste edozein ikastetxetan baiño geiago. Onek zerbait esan nai duela derizkiot. Irakasle aldetik ere ondo osatua dago. Txikienekin amar andereño daude eta oiñarri eziketakoekin amaika irakasle.

Ikusten dezuenez, txikien andereño bakoitzak, bataz beste, 28 aur daduzka eta oiñarri eziketako irakasle bakoitzak 34. Beldurrik gabe esan dezakegu alde onetatik ere ikastola oso ongi ratua dagoala. Neurri edo modulo egokiena 25-35-ren tartean baitago.

Beste aldetik, iritxi zaigu urtetan atzetik gabiltzan baimena edo legalizazioa. Eziketako Lege Berrian oiñarrituta dago bera eta irakaskintza ofizialki, bi izkuntzetan emateko baimena lortu da. Garrantzi aundia dauka onek ikastola danentzat, ez baitzuten era ontako baimenik eman orain arte.

Baimen onek jarraipenik izan dezan, bi arau auek bete bear dira:

1.—Irakasleak Eziketako Sindikatoan eta Seguro Sozialetan sartzea.

2.—1974-1975 ikastaroaren asierarako, legeak eskatzen dituan aldaketak egitea.

SEGURO SOZIALAK SORTZEN DUTEN ARAZOA

Eziketako legeak seguro sozialetan sartu gabeko irakaslerik ezin dezake onar eta, Delegazioan, sarrera au baieztutzen duan agiria eskatzen dute. Beraz, pauso au eman bearra zegoan eta gure ikastolako batzordeak eman du.

Aurtengo ikastaroa baiño leen ere, irakasleek bazituzten seguru bereziak baiña oraingo au ikastolentzat askoz garestiago da, irakasleari ordaintzen zaionaren erdia, gutxi gora beera, kentzen baitu I.N.P.ek. Konturatuko zerate, noski, onek ikastolari sortzen dion arazoa. LEENEZ GAIN, DIRU ARAZOA.

Naiz eta orain arte Zarautzko ikastola bakarrik izan ontara beartua, besteak ere beartuko dituzte eta guk nai baiño leenago gaiñera. Orregatik, neurriak aurretik artzea egoki litzake. Ez ote legoke ezer egiterik ikastola denak elkartuta?

Badakigu IKASTOLETAKO FEDERAZIOA arazo onetaz kezkatuta daogela, baita beste arazo asko esku artean dituala, ere baiña, ez aal litzake egoki, au aztertzeko norbaitzuk izendatzea? Bear bada, ezer egiterik ez legoke baiña ziur jakingo genduke beinik bein.

Bigarren arazoari buruz, zer esan?

Ikastola denak daukate aldaketak egin bearra eta batzuek nai-ta-ezkoa dute berria egitea. Gurea auen artean arkitzen da. Ezin dezakegu orain arte bezela jarraitu, legeak agintzen digulako eta, batez ere, euskerak eta gure semeek bear dutelako. IKASTETXE BERRIA EGIN BEAR DUGU.

Gaur egun, ikastetxe denak dituzte arazo aundiak eta ikastolak, berriak izanik, egiago. Bestetik, Euskaleri osoan iritzi desberdiñak dabiltza ikastolari buruz: izkuntza, erlijioa eta pedagogi aldetik batez ere, baiña iñork ukatuko ez duana da IKASTOLAK BEAR BEARREZKOAK DITUGULA, eta Aurtiz-ek orri auetan ederki adierazten zigun bezela, zenbait ikastola il ala biziko egoera larrian arkitzen dira.

Zoritxarrez, ikastola oietako bat degu Zarautzkoa eta DENOK ELKARTUTA ere, naiko lan izango degu egoera au gaindutzen. Alperrik izango da gure indarrak beste arazotan erabiltzea, IKASTOLA IXTEN BADIGUTE.

Kontura gaitezen 1974-75-ko ikastaroa nai baiño leenago etorriko dala eta bitartean bete bearrak betetzen ez baditugu GUREA IZANGO DELA ERRUA.

Saiatzen bagera laguntzak lortuko ditugu eta ikastetxe eder bat jasoko dugu, baiña gure arteko ixkanbillekin jarraitzen badegu ez dugu izango ez laguntzarik eta ez ikastolarik.

Beraz, norkeriak utz ditzagun alde batera eta el dezaiogun lanari arretaz. Onela jokatzen badegu, beste arazoak ere konponduko dira.

IMANOL MURUA



irakurleak mintzo

UTIKAN EPAILARIKERIAK

Oso idazlan polita Z.A. aldizkariaren 515'gn alean agertu zana: «Utikan eskuindarrok». Oso polita, bai, mingarria eta... ez ba'litz.

Euskaldunon artean batasun edo elkartasun apurrik ba'lego, ori indartzen saiatu bear lukean astekariak —euskaldunen asterokoa dala dionez— orra banaketa bereizgarria egin. Besterik zer adierazten du, bada, «utikan eskuindarrok» esateak? Ziur nago, Z.A.k etzuala esan naiko iñola ere onako au: «Utikan GU eskuindarrok».

Beraz, garbi dago: «Utikan ZUEK eskuindarrok» esaten zuala. Ez dago beste iñolako modutara ulertzerik.

—oOo—

Bai gauza erraza dala «zu pekatari» egiñaz, nork bere burua goraipatzea! Atsegiña ere, bai, agian, besteak epaitze ori. Eta guztiz atsegiña gertatu zaio Z.A. asterokoaren idazleari —idazle-taldeari?— alderdiak eta jokabideak eta pentsakerak eta gaiñerakoak epaitzea.

Dotore erabaki ez baldin ba'ditu, gero, zeintzuk atzerakoi eta kaltegarri; eta, jakiña, zeintzuk aurrelari eta mesedegarri. Ba-dirudi zuri-zuria eta beltzik beltzena elkarren artetik bereiztea bezain garbia eta erraza dala gizakion arteko bereizketa. Gizaki bakoitzak —alde ta aldi ain ugariduna danez— guztietatik naasian ez ba'lu bezela beregan.

Azken-auziko Epailaria aipatzen dualarik, ba-dirudi Z.A. ari dala gaur dagonekoz auzia erabakitzen: gu alderik txalogarrienera, zuzenen eta mesedegarrienera; zuek —bai ZUEK— galgarrien aldera. Makurra epailarikeria!

—oOo—

Eta ori naikoa ez ba'litza, beste bi gauza geiago. Batetik, gaitzesten dituan guztiak zaku berean sartzen ditu. Oso jokabide ta epaiketa polita, dotorea; jakiña, indarkerizkoa ez ba'litz, zearo «imperialista» eta «fascista» ez ba'litz. Zalantzazko eta aukerako zenbait iritzi eztabaidatzetik asi eta makurkeririk beltzeneraiñoko guztia, ortxe! dana zaku ber-berean sartu. Ez dago, bada, maillarik!

Bestetik, zer adierazi nai ote du «euskera batutzearen arriskua jokatu nahi ez duzuenok» dionean? Euskera batutzeko eta osotzeko, bide bat besterik ez dagola, agian? Bide bakarra eta bera, ain zuzen ere, epailariena. Ederki dago. Au guztia eskuin'dar edo eskuitar izatea ez baldin ba'da...

Indarkeria eta jauntxokeria ez al dirudi? «Gure aldizkarian nai duguna esango dugu eta ixo gaiñontzekoak». Nork esan, onelatsuko jokabidea nabarmentzen ez duanik?

—oOo—

Jo dezagun «euskera batutzearen arriskua jokatze» orri dagokionera. Amarretatik zatirik aundienean ez al dira atzera-pausoak «euskera batua» deiturapean dabiltzan aldaketak, azkenengo 70 urtez egindakoak ukatuaz atzeragora begira artuak diralarik?

Bestalde, bere bideaz ain arro dagonak eta ziur bezain zuzen dabillenak, bai al ledukake besterenak itsusten nekatu bearrik? Askatasunaren eta «demokrazi» aren izenean ote?

Idazpuruko itzez bukatuko dut, idazle ta irakurle, guztion asteroko dan oni mesede baiño kalte geiago egin dion idazlanarekiko jarduna: «Utikan epailarikeriak».

Gaztañaga'k

(c) Ministerio de Cultura 2005



Oñati



Alkiza



Tolosa

baiona

APEZPIKU BERRIA

Bertze Baionako berrehun bat jenderekin ni ere hain gertatu bainaiz zonbait hitz nahi nuzke erran, apezpiku berriaren hitz aldiaz eta bertzalde jakin dutanaz.

Hitzaldi bat egin du laburra bainan ona. Bortz pondutan lau minutaz huna zer erran daukun:

1.º Girixtinoek ez dugu munduaren moldatzeko bertzek ez duten modu partikularrik... bainan behar dugu mundu horren moldatzen bertzekin batean lanari lotu.

2.º Jesu-Kristo ez da, ez modela bat, ez eta ere gure orde gogoetak egin dituen laun handi bat... Guhaurek behar ditugu bakotxak guretzat gure gogoetak egin, bai mundu huntako harat hunatez, bai bertze munduaz, bai fedeaz eta bertze gauza guziez.

3.º Denak anaiak girela eta anai gisa elgar behar dugula maitatu ez da dudarik... bainan amodio hori eta anaitasun hori bat ala bestea erakusten ahal dira ainitz gisetarat... hala nola, batere dudarik gabe, munduan zerbait injustizia ikusten dugularik, amodiotasunak eta anaitasunak manatzen dauku azkarki borroka lotzea munduko manerek lehertuak dauzkaten gizon guzien alde.

4.º Girixtinotasuna ez da girixtino ez direnen jorran artzea. Gure fedea ez dutenak behar ditugu errespetatu, heiekin beti lañoki mintzatu, eta gure erabiltzeko moldez heieri erakutsi zer xantza izigarria dugun fedearen ukaitea.

5.º Behar dugu ere onhartu girixtinoen artean ez girela denak bardinak. Behar dugu onhartu ez girela girixtino guziak ados munduaren erabiltzeko moldetan edo elizako gauzetan beretan. Ez dugu pentsatu behar gure aldekoak direla bakarrik girixtino onak eta bertzeak hitsak edo eñulak... desberdinak izanagatik behar dugu ikasi elgarren errespetatzen.

B.

bergara

POL-POL MENDIZALE TALDEA

Jai igandetan mendiratzen bazera eta ikusten badezu ume talde aundi bat, zure galderari erantzunaz, esango dizue Bergarako Pol-Polekoak direla.

Jakiña, ume auek ezin litezke utzi gidari edo zaindari barik, umeak ume direlako, baiñan, egitan, lan gutxi ematen dute; bigarren urtenaldirako badakite nola ibili bear duten, badakite zintzo ibiltzen ez badira etxean geldituko dirala. «Orain arte alako neurririk artu bearrik ezdegu izan».

Talde auen ardura mendizaleen gain joaten da. Beti agertzen dira borondate oneko mendizaleak alako ibilialdietan lagun egiteko eta zaarragoen laguntza ez da gelditzen bidea erakusten bakarrik, baita mendiak dituan edertasunak azaltzen ere.

Mendi eta alderdien izenak; zuaitz edo arbolak ze motatakoak diren; errekatxoak nora dijoazen t.a.

Perretxiku sasoian emen izaten dira kontuak.

Ondo ikasirik baitira, edozein perretxiku mota esango dizue bere latiñezko eta euskerazko izenarekin. Ez da ba batere arritzekoa alako perretxiku txapelketan leenengo ado aurrenengo sariak Bergarako bidean jartzea. Tolosan eta Gasteizen badakite auen berri; txindurriak bezala zabaltzen dire mendietan zear bazterrak alaituaz bere ume deadarrez.

Antxume jolas gure dan baten [antzera
saltoka eta laisterka batetik [eta bestera;
zure bide txigorrak gora eta bera
ibiltzen nituan nik goizetik gabera.

Joan dan igandean Eibarko Kalamuarako asmotan atera giñan 126 umeri lagun egiten. Eguraldi txarrak jo zigun bidean eta aurrera egiterik ez, onela ba, igande goiza paregabeko Arraten egin genduan.

Ara zer esan zigun gugana eldu zan ama batek.

«Nere alabari esaten diot mendira ateratzeko, baiñan nolan lagunik ez duan ez da ateratzen. Nere alaba oso gogorra dago, baldartuta. Bergaran biziko bagiña joango bear luke. Zuek egiten dezutena ez da diruz ordaintzen»:

Ondo zabiltza etxekoandre.

Ume auen gurasoek esaten digute mendirako bidea artu dutenetik jateko gogo obea, lo zer esanik ez, alaiago dabiltzala gogortu egin direlako.

Eibarren ezagutzen ditugu ainbat mendizale jator mendiko berri ondo dakitenak; auentzat ez litzake bate zailla tarteka tarteka alako gauza on bat egitea; izango luteke zenbait poz eta atsegin.

ERIOTZAK

Urtarrillak 27. Arratsaldeko 7 etan Santa Mariñeko eleiz nagusian on Julian Igartua Unamunoren il elizkizunak izan ziren.

Ordu berean eta urtarrillak 29 San Pedroko eleiz nagusian, Iza eta Muruatar Juana, Oianguren baserrikoa, 75 urterekin.

Baita, Perulde baserrian, Gallastegi eta Gorosabeltar Maria 86 urterekin.

Gaur, illak 31, zeruratu zaigu Beaintar Florentina, 85 urterekin.

Senide eta aaide guziei gure egitazko samin agurra.

Zegamako Arizkorretatar Luziori gure naigabea agertzen diogu bere anaiaren eriotzagaitik.

Zeruetan gerta dedilla.

MENDIKOI

irun

Egitan lotsagarri gure errian gertatzen dena. Ainbeste euskaldun izan bertan, amaikatxo «ao-berodun» ere bai, eta, ala ere, iñor ez euskeraz idatziko duenik.

Utsune auxe nolerebait betetzeko, neronek ekin bearko diot. Jarraitzaillerik sortuko al zait. Ala bear beintzat. Txandaka egitea beti ere errexago da ta.

Ia, bada, nork seitzen didan. Nik asiera eman det.

—oOo—

«Urrutikuskiñ» izeneko tresna berri orren zale amorratua naiz neroni.

Joan den asteko «Bat, bi, iru» zatian izugarrizko txaloak jo zizkaten gure ele euskerari. Izkuntza bakana zela, beste iñoren antzik etzuela, oso atsegiña zela, ikasten gaitza eta zailla ere bai, antxiñako oroipen eta gordaillu zaindugarria eta abar.

Zer ote zioten gure izkera arlotetzat jo eta baztartzen duten gutarrek?

—oOo—

Iruiñeko lagunzar batek illero-illero euskerazko «Principe de Viana» bialdu oi dit eta dan dana irakurri gabe ez det uzten. Nik irakurrita gero pozik asko artu eta irakurtzen du emen bizi den baztandar batek.

Ederki dator illeroko auxe. Bertan jaso det Nafarroako Agintari zintzoek euskeraren alde artu dituzten neurri bikaiñen berri. Ango arrazoi berdiñak daude, bada, ementxe ere. Bidezkoa dela deritzat an egiña emen ere egiteari.

Oraintxe litzakeela uste det garai egokia nafarrei jarraitzeko.

Aipatu dedan illeroko ortan, Euskaltzaindiko Satrustegi Jaun argiak, ezeren bildurrik gabe, bazterrak ondo astintzen ditu, apaizetatik asita. Eta egiak argi egiten. Esnatuko al dira batzu-batzuek, zeozeren bearra badute beintzat eta. Zorionak J.M. Satrustegi Jauna, orren garbi mintzatu zeralako.

—oOo—

Irun, gure erri ontan, zenbat illemoztegi emakumezkoentzat ote dira eta zenbat «jai-toki» gazteriarentzat?

Galdera auxe egin zen leengo batean sagardotegian. Nork erantzun? Ez da aisa.

Illemoztegiak, g i z o n ezkoentzat, beeraka dijoaz. Oso ere beeraka. Izan ere, orain ikusten diran mutil gazte askok bearrik ez dute. Ala dirudi, neri neroni, etzait batere atsegiñ baiño. Emakumezkoenak, goraka, ugaltzen dijoazkigu. Laister zorri eta partzik ez da izango, ezta aztarren txikienik ere. Emakumeetatik, ordea, gizonezko illeluzeetara datoz... Ikusia, nere begiz ikusia, esaten det.

«Jai-toki» itxiak bai ugaldu direla! Erruz. Zenbat ote? Ez da aisa esaten. Gazteria jolastea ongi da. «Nola jolastu», ordea, or zeok koxka. Eta gaur gaur bezela, jai-toki oiek usteldegi utsak dirala bertan dabilltzanak aitortzen dute.

—oOo—

«Urdanibia» jauregian, gure erri-kirolak gaitzat arturik, itzaldi ederrak, zinez argituak gaiñera, entzuteko zoriona izan degu. Zorionak antolatzaille izan diren Yeregi, Balda, Usategieta eta gaiñerakoei. Dema, arrijasotzaille, aizkolari e.ab. antxe azaldu zitzaizkigun.

KUKUTXO

eibar

Otsailaren 13an. eratuko da S.C.R. Arrate deritzan elkartearen Urteroko Biltzar Orokorra. Biltzar hau elkarte bereko Gela Nagusian ospatuko da, arratsaldeko 7,30etan. lehen dei gisa, edo 8tan. bigarrenez —aurrena ezean—, honako egitarau honen arauera.

1.—Orain hurrengo biltzarraren agiria irakurri, eta hala komeni balitz onartu.

2.—Iazko Memoria irakurri, eta komeni balitz ere onartu.

3.—Diru-kontu, zerrenda eta gainontzeko xehetasunak irakurri, bai eta onartu ere, komeni balitz.

4.—Lehendakari berria aukeratzea.

5.—Galda-erantzunak.

A.

sara

URTE BERRI SARAN

«Zazpiak bat» taldeko gazteak, beren buruzagiez lagunduak, ibili dira herri guzian, txixtu eta akordeonekin, airoski urte-onaren desiratzen.

Usaia zahar hori, puxka bat ahantzia zena azken urte hautan, arrapiztu da orai gure talde ttiki bainan erneari esker.

Biziki ongi errezebituak izan dira etxe guzietan eta ainitzek nahi izan dituzte gure txistulari gazteenak entzun. Horrek erran nahi du, gure iduriko, Saratarrek arta hartzen dutela talde hortan dituzten beren gaztez eta nahi izan dutela jakin hea zerbait on ikasten dutenetz.

Milesker Saratarrak hola segitzea zuen haurrak.

Milesker ere zuen bihotz haundiari; zoini esker aintzinat eremaiten ahalko baitugu hasia dugun saila; ongi bizi, atxik gure usaia xaharrak, gure kantuak, gure dantzak, eta gure musika!

«ZAZPIAK BAT»-en

PRESIDENTA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

zure etxea
USURBILEN

sarrera
50.000 pezetan

ordainketarako
erreztasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokiena aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aurreski kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.

CSG CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIAN
C. A. P. n.º 106.527;3

(c) Ministerio de Cultura 2005

ELIZAREN BERRI

MAITASUNA ETA BORROKA

Matagrin, jadanik, aski ezaguna dugu: Grenoble-ko gotzaina, Frantziako Gotzainen azken batzar nagusian "kristau politika ihardunari" buruzko txostena zuzendu zuena alegia.

Antoine Riboud, berriz, enpresalaria da.

Frantziako kristau enpresalariek antolaturiko batzar batetan, gai bi harrotu dituzte aipatu bi gizaseme horiek: Elizaren erantzukizun politikoa batak, eta enpresa-buruzagiaren sozial erantzukizuna besteak.

Grenoble-ko gotzaina honetara heldu zen: giza maila arteko borrokaren aurrean "eramantasuna (jasantasuna alegia) ez diteke kristautzat har"; maitasunak istiluei bekoz beko, aurrez aurre begiratzea (zentzu eginkorrean hartuaz, jakina) eskatzen du.

Aipaturiko enpresa-buruzagiak honela aurpegiratzen dio: sozial istiluren bati buruz, zer-nolako analisia objetibo ukan dezake Elizak, errespeta ahal dezake tartean dabiltzen pertsonen pluralismoa?

Galdera zorrotza inondik ere, eta maltzurra.

Halatan bada, hona Matagrinen erantzuna: sarritan, giza maila arteko istiluei buruz, anlisiabide eta aukerabide asko izan ohi da; halabaina, kristauak har lezaken bideak, edozein delarik ere, Ebanjelioaren goreneko galdakizunei erantzuteko gisakoa izan behar du, hots, behartsuenen errespetoa, aberastasunen susmoa, diruaren gaitzestea dakartzienak. Eta Matagrinen konklusioa: "Maitasunarekiko sasi teologia hal, hots, gizon emakume guztiak senide direla eta, beraien arteko borrokaz axola ez dena, zapuztu egiten dut".

Ezin esan Matagrinen hitz horiek aplikazio urrikoak direnik; aitzitik, bete betekoak direla esan behar, eta maila guztietau. Lekuko, oraindik orain bi gotzaiek argitara emaniko ageria. "Principe de Viana" azken zenbakian (83nean) J. Aeman Z.nek esaten zuena esan behar nik ere: "Pena da hemen gehiago ezin idatzia". Baina, irakaspen bat eman nahi, erruren bat gaitzetsi nahi, eta okasiotzat erantzunik eman ez dezakeen beherekoaren jokamoldea hartzeak, ez du ematen hor goian aipaturiko printzipio hori betetzen duenik, askoz gutxiago ere. Taktika aldetik ere, arras kamutsa jotzen dut horrelako jokabidea, zeren eta, ez goikoek, ez beherekoek ez bait dute haintzat hartuko horrelako irakaspiderik.

Pentsamendu adierazteko, parabeletara orde, urruneko zeharbidera jo beharrean gertatzen garenok, parabolen maisuak zioena bera esanen ahalko: Qui potets capere, capiak.

KRISTAUA ETA SOZIALISMOA

Aspaldion asko harrotzen ari den arazoa. Frantzian batez ere; bozketak gainean izaki, eta kristauengandiko botoak irabaztea sozialistentzat ahuntzaren gauerdiko eztula baino joan-etorri handikoa berriz. Horrez gero, eginahalak eginen dituzte hau frogatzeko: sozialismoa ez doala kristautasunaren aurka. Oraino ere, kristau askorentzat frogatzeko bait dago hauzi hori.

Ondoren, Frantziako sozialista alderdiaren koordinaketarako idazkari nazionala den Pierre Mauroy-reu erantzuna emanen dut, aipatu arazoari buruz.

Bost puntutara bil daiteke egin zitzaion interviewa; bi punturi buruzko erantzuna bakarrik emanen dut:

1. Kristautasuna eta sozialismoa. "Ezin jabetu naiz —zioen— XIX mendeko kristua sozialismora nola ez zen heldu; sozialismoak orduan ekonomi zapalkutzagandiko askapena eskatzen bait zuen, edonorentzat lan egiteko eskubidea, bizitzetxe taxuskorako eskubidea, emakume eta haurrekiko babesa... Gaurgero Eliza katolikoak, luzaroan monarkiaren aldekoa izan delarik, ez du onartzen politika gutxi batzuen arazo gerta dadin, baizik "gizartean bizitzearen aldeko guztien borroka" dela esaten du. Gaur, hain zuzen, hauxe azpimaratzen du: gizakiaren frutu diren zuzengabekeriek "egiturazko zuzengabekeriak sortu dituzte, eta horrez gero, egitura aldakuntzetara jo behar da". Elizak, guk ere onartzen ditugun galdakizun etikoak galdatzen ditu kristauengandik: pertsona ahulenen babesa, diru nagusitzaren gaitzespena, pertsonekiko errespetoa, aginpide totalitarioen ezabatzea".

2. Filosofiazko iritzi desberdinak. "Sozialista alderdiak ez die eskatzen alderdikideei marxismoa onar dezaten. Bestalde, marxismoaz mintzatzean, berezketarik egin behar da: gauza bat da materialismo dialektikoa, filosofia osotzat datorrena, eta beste gauza da marxismoa, historiazko eta ekonomiazko analisiabide bezala, gaurko pentsamenduaren patrimonian sartzen dena.

Izan ere, bada "erabateko" marxista sinesterik; bada ere, ordea, —eta hona ni bat— marxismoa errealitate sozialaren analisiarako tresna bezala hartzen duenik".

Horra beraz. Gauzak ez dago, ez onartzerik, ez gaitzesterik, kriteriorik eta berezkuntzarik gabe. Dena den, ez dago arrazoinik, oraindik orain Ikastola-Batzar batetan gertatu denez, sozialismo hitza atera orduko egundoko iskanbila harrotzeko.

POITIERS-KO SEMEA, BAIONAKO GOTZAIN

Urtarrilaren 20ean sagaratu dute gotzain, Baionarako gotzain-lagun izendatua izan zena. Elizkizuna Potiers-en egin zuten. Jende asko joana da haruntz Euskal Herritik.

Hasteko, itxaropen ederrik, bai. Baionako artzain, eta Potiers-en gotzaindu, halajaina! Ez zegok gaizki!

Halere, ba omen alde baikorrik ere. Euskara ikasi nahi lukeela diote. Geroak esanen. Aldez aurretik, halere, esames horietan uste handirik ezin ezar. Ez ahal da ba egia, Euskal Herri bertako semeek, eta euskaldun familiatakoek, euskaraz egiteko erraztasunik ez dutela eta, euskal girotako batzarretan barra-barra erderaz aritzeko lotsarik ez dutela? "Ad majora natus sum", nonbait.

BREBIARIOA EUSKARAZ SALMUDIA ORIXE-RENA

Laster izanen omen dugu euskaraz Brebiarioa. Frantsesek egina dute; gaztelerazkoa ere agertua da. Euskarazkoa ere, laster, agi denez, Jakina, liturgiako testo guztiak bezalako euskalkitan joanen da, zeren eta gipuzkoerazkoa gertutua delarik, bizkaierazkoa gertutzekotan direla entzuna bait dugu; osoa izateko, lapurtarra faltako litzake. Hori ere eginen da, noski; ez dugu dudarik. Behin hasiazko gero, motilak gara gu, euskaldunok, gauzak erdipurdi egiteko!

AMUNSA

NORK KUKURRUKU!!!¿¿¿

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian



Bankaetxe on batek arazo asko koponduko dizkizu.

Zenbat eta eskurago orduan eta errezago.

Banco Guipuzcoano

gertuan daukazu, zure zerbitzuan prest eta gogotsu.

(c) Ministerio de Cultura 2005

Mahai inguru baten inguruan

Euskal ekonomiaren etorkizunari begira (II)

Urtarrilaren 11an egin zen mahai-inguruaz mintzatu nahi nuke bigarrengo lantxo hontan.

Aurrekoan aipatzen nituen hizlari berberak oraingoan ere mahai-inguruan J.J. Rodriguez-en zuzendaritzapean. Oso ondo zuzendu zuela elkarrizketa J.J. Rodriguez-ek esan behar dugu bidenabar.

Bil ditzagun iritziak eta eztabaidak gai bakoitzari lotuz: Entzuleen artetik egindako galderek sortu zituzten gai hauek. Beste egun guztietan bezala arazoari muin-muinean sartzen zioten galdera egokiaren eztena.

Baina erantzunak ere aitzaki haundirik gabeak dira. Zuzen eta jator erantzuten zien galderei. Orain-txe berton ikus ditzakegu.

A) Heziera izan zen lehenik aipatu zen gaia. Bi alderdi ikusi zitzaizkion gaiari.

1) Heziera eta industri etxeen arteko harremanen lokarriak.

2) Lantoki eta ikastetxe jakin baten arteko harremanak.

Gaurko ekonomian hezierak duen garrantziaz zertxobait zehatz-mehatzago eta garbixeago esan zen. Produzio indarren arteko indar berri bat bezala jotzen da industriaren bigarren aldian heziera lehengoan aipatu genduanez gero. Produzioaren alderdi bat bezala hartzen da giza alderdi hau gaurko ekonomiazko liburuetan.

Oinarizko pentsakizun hauek berritu ziren eztabaidaren hasieran bidetik kanpora amildu ez zedin gaia.

a) Goi mailako heziera eskatzen dute herri aurreratu bateko teknika-molde berriek; buru-lanaz baliatu beharko bait dute. Buru-lana neurtuko eta eskertuko da.

b) Aldatu egiten dira gizarteko egoerak eta egoera hortarako taxua. Ikasi eta ohitu egin beharda teknika-molde berrietara ere moldatzen.

d) Etengabe ikasten, hezitzen eta eskolatzen jardun beharra dago.

Hori guztia sartzen da Heziera Legean. Premia hontaz jabetu dira.

Politikazko iritzira banatu hezierarako diru-laguntza Honek Euskal Herriari ematen dion jipoiaz mintzatu zen hizlaria.

Hau garbi azaltzen du A. de Miguel-ek urte hontako Urtarrilaren bian, "Informaciones" aldizkarian. Euskal Herrira ekarri da sei urte betegabeko haurrentzat diren geletarako izendaturik zegoen dirua ia erabat. Eta hori hemen baino premia haundiagoak beste leku askotan egonik. Ikastolaren hazteak bildurturik, noski, ezpairik gabe.

Erdi mailako eta goi mailako hezieran du batipat zerikusia hezierak ekonomiaz. Eta hemen moldatu behar dira gauzak taxuz, karrerak eraberrituz eta hauen berri argi eta garbi emanaz. (Zenbatek aukeratzen duten karrera bat gehiegi ezagutu gabe).

Oinarrizko bi pentsakizun, gaiari girtenetik heltzeko.

1) Ekonomia taxutu behar da heziera moldatu aurretik. Bestela jendea larritu eta aztoratu egiten da. Etsi egiten du jendeak. Eta okerrena: ihes egiten du titulodun jendeak. Hau ez da gerta ditekeen zerbait, gertatzen den zerbait baizik.

2) Ez atzera eta ez aurrera zuloan sartutako ekonomiaren gurpilak jendea kanpora botatzen eta uxarazten du. Batetik gertutu gabeko jendea etorri eta etorri ari da Bestetik ikasitako jendea ihes doa. Uka ezinezko ondorioa dator: inolaz ere aurrera ezin joan den ekonomia.

Beraz garbi dago hemendik hamar edo hamabost urtetara izango den industriarik begira jarri behar dela heziera eta irakaskintza. Hontarako dirua behar da eta ez norbaitek bere gogoz eman dezakeen dirua, estaduak eman behar duen dirua baizik.

Eskua sartu behar dute hezieraren eraketa hontan Herri txikiek ere. Ez dira ahaztu behar. Ez da ezer alferrik galdu behar. Ondo erabili behar dira bakoitzaren ondasunak ere. (Zera aipatu zen adibidez: "Unibersidad Laboral"-eko kontua. Gipuzkoan bi ikasle atera ditezke aurrera bek hoietako bakar batez).

Eraketa on baten barruan alderdi interesgarri batzuk gerta ditezke:

a) Lanlekuan jartzea kosta egiten zaio Unibertsidadetik atera berriari. Horregatik bidezkoa litzake ikasten ari den bitartean tarteko berenik lantokian jardutea. Bidez ikasten jarduteko diru piska bat ere atera egingo luke. Ez litzake besteren kontura ikasten ibiliko. Urte gehiagotan ikasten jardun ahal izanen luke eta gehiago jakiteko bidea edukiko.

b) Egon ditezke hontaz arduratzen diren beste elkarte batzuk ere, Patronatoak adibidez.

d) Hau aurrera eramateko gaur eta honerako egokiak eta Herriaren ekonomiako egoerari lotuak dauden bideak eskeini behar dituzte ikastetxeek industriarekiko harreman eta elkar-lanean.

——oOo——

B) Euskal Herriko egiazko arazoei buruz egin diren azter lanak aipatu ziren. Lan hauen beharra ikusi zen.

Gaurregun hontaz dauden eragozpenak azaldu ziren. Badira azter-lan hauek egiteko agintzen dituzten elkarteak. Baina gero ez dira argitaratzen. Edo berauek nahi dutena bakarrik agertzen dute. Ezer gutxi jakinik geratzen da jendea. Beste eragozpen askoren artean dirurik ezaren eragozpena dago. Asko behar da taxuzko lan bat egiteko.

Oso beharrezko da dato zehatzak biltzea ere ekonomia eraketa on bat egin nahi badugu.

Azter-lanak ere elkarrekin lotzen saiatu behar da indarrak alferrik ez galtzearren. Hontaz Mankomunidadeak duten garrantziaz hitzegin zen.

DATOEN bankaetxe baten beharra ere sumatu zen. Azaldu zen honen premia Iruretagoienak hirigintzaz eman zuen hitzaldian ere. (Baina beste batean emango dugu jaun honen iritzien berri). Bizkaian gai hontaz zerbait egiten hasiak direla badirudi.

Bidenabar, baina, aipatu zen enkuesten arazoa ere. Arreta gutxiz erantzuten zaie, ez bait da jendeak onar dzakeen agiririk agertzen askotan.

——oOo——

D) Euskal Herriak duen elite on baten faltaz mintzatu zen gero. Jabetu al dira egiaz egoeran hontaz hemengo lantegietako nagusiak? Gaurrerako taxuturikako euskal-enpresariorik bai al dago? Honelatsuko galderak egin ziren.

Hauxe esan zen hontaz:

1) Aukerako talde hauek sortzea lan gaitza da (lehengoan esaten genduanez kanpora doaz ihesi euskal-industriaren iraultza egin zuten gizonak). Baina sortu ditezke, ez da hain ezinezkoa.

2) Nahitaezkoa da hontaz argitua eta kezkatua eta jabetua egotea. Zuztarretik gauzak garbi ez dakizkienak ez du honen premiarik ikusiko eta ez da aldaketarik egin ahal izango. Hortik hezieraren axola.

2) Daukaguna kontuan edukirik jo beharko da hirugarren mailako industritara. Gipuzkoako industriak ez du beregan aldatzeko hainbat indarrik, baina lozorrotik esnatzen ari ditu ekonomia-haroak eta egoeraz jabearazten.

Hotarako behar-beharrezkoa da produzioa gehitzea bestela ez ditezke hirugarreneraino alda. Baina aurrena buruak eta buruzpideak aldatu behar dira.

Gizon eraginkorrik ere sortu behar da. Bide berriak urratzen dituen teknikoan taldea ere premiazkoa dugu.

Lanoetatik ez da ezer ixuri eta jaulkiko. Daukagunetik hasi behar da. Egiten dena saltzeko moduan eskeini behar da azokan, besteak baino hobea eta merkeagoa, ahal dela, alegia. Bide hortatik jo behar da beste alderdi eta industritara. Gastabide besterik ez bait dira hasieran hirugarren mailako industriak.

Industri nagusien morroi diren industria langutzaileen berritu beharra ere aipatu zen. Teknika-jakintza gehiago erabili behar dute. Ez ditezela makina eta gizon batzuen gordeleku gerta.

Hau da gorabeherak izkutarazteko bidea. Hau da Euskal Herriaren hazkundeari laguntzeko era.

Hirugarren mailako lantegiak sortzeko norainoko indarrak dauzkagun ikustea ere nahitaezkoa dugula esan zen. Bakoitzaren premiak, asmatzearen beharra, ahalaren eta ezinaren bereizketa...

Azterlan bikaina litzake hau guztia. Egin gabe dagoen azter lana, noski.

AURTIZ





(c) Ministerio de Cultura 2005